

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Aurretik ekiteak beti errazten
du bidea **RAMON SOLA > 11**

UMOREA POLITIKOA DA:

Mahai ingurua, Laura Mintegi eta
Uxo Anduagarekin **> 17**

GAUR8 

2017ko urriaren 14a | XI. urtea • 539. zbk.
0,50 euro

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

ROHINGYAK, PARIEN PATUA? > 6

Fred DUFOUR | AFP





Brasil: LGTB fededunak beso zabalik hartzen dituen eliza 04

Parien patua: Myanmarri arrazoia emango ote diote rohingyek? 06

Durangoko geltoki zaharrarekin badoa historia zati bat 12



Laura Mintegi eta Uxo Anduaga, umorearen eraikuntzaz eta mugez solasean 17

E.lkarrizketa: Iñigo Gutierrez 22

Elikatu arduratasunez 26

In fraganti: Muriel Ruiz de Larramendi 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Isidro Esnaola:** Gerra ekonomikoa piztu dute Katalunian

10 **Saioa Aginako:** Itsumustuan

11 **Ramon Sola:** Aurretik ekiteak beti errazten du bidea

16 **EXPRAI**

20 **Beñat Gaztelumendi:** Harrokeriaz

21 **Nerea Ibarzabal:** Beti hor, baina

25 **Miren Azkarate:** 1 x 2 gerturatu eta lau!

25 **Antton Izagirre:** Suhiltzaileak

30 **Montse Maritxalar:** Berrikuntza teknologikoa hizkuntzaduna da



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Gerra ekonomikoa piztute Katalunian

Urriak 1eko erreferenduma pasatu arte, Estatu espainoleko Gobernuak ez du kontu ekonomikoetan arreta jarri, ez bazen erreferendumaren fakturen ordainketa oztopatzeko. Bozketaren ondoren Estatuaren estrategian zerbait mugitu zen. Aldaketa ez zen handia izan, baina beste mota bateko mehatxuak jarri zituen mahai gainean, tartean ekonomikoak. Esate baterako, enpresen ihesa irudikatzeko hainbat enpresa esanguratsu beraien egoitza nagusien helbideak aldatzen hasi ziren, Kataluniatik Estatu espainolera. Lehenengo Sabadell Bankua izan zen; beste batzuek asmoa agertu zuten. Rajoyren Gobernuak azkar eman zion bide eskaerari. Ministro Kontseiluak lekualdaketak errazteko legea aldatu zuen. Erabaki horrek ez ditu hautsak harrotu, nahiz eta akziodunei besterik gabe erabaki ahalmena kendu. Bakarrik Adicae elkarteak altxatu du ahotsa jukutria salatzeko. Mugimendu horrek irakurketa asko eragin ditu. Adibidez, enpresek egoitza trukatzek bote-re ekonomikoak independentzia lorgarri ikusten duela erakusten duela azpimarratu dute zenbaitzuek. Bestalde, Gobernuak bultzatu duen aldaketak argi utzi du legea aitzakia gisa erabiltzen duela: nahi duenerako, legea ez da oztopo, ezta Espainiako Konstituzioa ere.

Egia da mugimendu horrek Katalunian oso eragin mugatua izango duela, Estatuaren Ogasunean jarraituko dutela kotizatzen enpresa guztiek. Zergen ikuspuntutik, beraz, ez dago aldaketa nabarmenik. Behin independentzia lortuta, enpresa bakoitzak Katalunian duen jarduerengatik kotizatu beharko du bertako Ogasunean, berdin da non duen bere egoitza nagusia. Eta irabaziengatik enpresek ez dute asko ordaintzen ez Estatuan, ez Katalunian, ez beste inon. Euskal Herrian, aldiz, egoitza aldaketaren eragina handiago izan liteke. Kontzertu Ekonomikoak eta Nafarroako Hitzarmenak ogasun ez-

berdinen arteko lotura puntuak eta konpentsazio sistematik dituztelako. Hortaz, Gasteizko eta Nafarroako gobernuen isiltasuna nahikoa harrigarria da.

Dena den, aldaketa esanguratsuena zera da: borroka politikoan enpresak nahastea gerra ekonomikoa martxan jartzea da. Eta borroka horretan kaltetuak, batez ere, enpresak izango dira. Argi dago enpresa denek bezeroak bi aldeetan dituztela. Enpresa batek egoitza mugitzen badu, alde bateko bezeroak gal ditzake; ez badu mugitzen, beste aldekoak. Harrapaturik daude. Bi aldeen arteko ezberdintasuna nabaria da: Estatu espainolak ia 49 milioi biztanle ditu eta Kataluniak 7,5 soilik. Bistakoa da zein aldetan izango dituzten kalte handiagoak enpresek, bai behintzat ez badute oso produktu zehatz bat. Okerrena zera da: merkatuaren eremu bat edo batzuk

Argi dago enpresa denek bezeroak bi aldeetan dituztela. Enpresa batek egoitza mugitzen badu, alde bateko bezeroak gal ditzake; ez badu mugitzen, beste aldekoak. Harrapaturik daude

utziko dituzte. Hutsuneak berehala betetzen dira; kasu honetan, kanpoko eragileei bezero berriak irabazteko aukera emango diete. Lehia ekonomikoa gerrarekin parekatu ohi da, eta, borroka esamoldea erabiliz, galtzen den eremu bakarra uzten dena da.

Gauzak horrela, sortzen den galdera da zergatik sartu diren enpresa handiak horrelako gerra batean. Edozein kasutan, galtzaile aterako direnak enpresa horiek dira. Beharbada erantzuna Estatu espainoleko kapitalismoaren izaera korporatiboan dago. Orain arte enpresa horiek botere politikoaz baliatu dira etekin mardulak lortzeko. Momentua iritsita, jasotako mesedeak bueltatu beharrean aurkitzen dira; gogo onez ala gogo txarrez. •

GAYAK ETA EBANJELIKOAK

Homofobia boteretsuaren aurrean, LGTB fededunei besoak zabaltzen dizkien eliza

Fabio de Souza Eliza Garaikide Kristauko apai-zak mota guztietako ankerkeriak jasan behar izan ditu bere homosexualitatea “sendatzeko”: gatz bainuak, behartutako baraualdiak eta baita exorzismo saioak ere. Hautzaroan gurasoek eramaten zuten elizan beti esaten zioten gay izatea «deabruaren gauza» zela. «Etengabe nire buruaren kontrako borrokan ari nintzen, asko sufritu dut. Ez nuen nire burua onartzen», gogoratu du 37 urteko gizon altu honek.


Fabioren bizitza egun Eliza Garaikide Kristauko kide diren askoren antzekoa da. «Itxaropenik gabe, bizitzarik gabe, dena galduta izango banu bezala bizi nintzen, ezkutuan. Barruan deabrua daukagula esan eta gu ‘sendatzen’ saiatzen dira. Inoiz iritsiko ez den ‘sendaketa’».

Banketxe bateko langilea, 2006an Eliza Garaikide Kristaua fundatu zuen Fabiok Marcos Gladston senarrarekin batera, Rio de Janeiroko Madureira auzoan. «Jendeak ilearen kolorea alda dezake, baina ez izaera. Homosexualek ez dute tratamendurik behar, maitasuna behar dute», nabarmendu du, elizan sermoia eman baino lehen.

Gayentzako “berrorientazio sessualeko tratamenduen” inguruko eztabaida duela bi aste berpiztu zen Brasilen, epaile batek psikologoei “terapiok” erabiltzeko baimena eman zienean. Epai horrek eskandalo izugarria piztu zuen Brasil osoan zehar eta manifestazio jendetsuak egin ziren irailaren 22an herrialdeko hiri handietan.

 **JENDARTEA** / Pablo RUIZ DE ARETXABALETA

Brasilgo mugimendu ultrakontserbadoreen joeraren kontra, eliza ebanjeliko batek beso zabalik hartzen ditu LGTB komunitateko kideak. Beste elizek «berrorientazio sessualeko» terapiak proposatzen dituzten bitartean, Eliza Garaikide Kristaua lesbiana, gay, transexual eta bisexual fededunei atea irekitzen lehena izan da.



Epailearen erabakiak zalan-tzen jartzen du Brasilgo Psikologia Kontseilu Federaleko arautegia. Izan ere, arautegiak horrelako praktikak guztiz debekatzen ditu, terapeutei lan egiteko baimen profesionala kentzeko zigorra aurreikusiz besteak beste. Osasunaren Mundu Erakundeak 1990etik ez du homosexualitatea gaixotasuntzat hartzen, baina Brasilgo mugimendu ultraeskuindarrek, eliza mendekostisten laguntzarekin, gayen aurkako gurutzada gogortu egin dute azkenaldian.

«SENDATZEKO» TERAPIETATIK IHESI

«Hemen ‘gay-ohi-ohi’ asko dago», dio Fabiok ironiaz, bere tenpluan “sendatzeko” errituetan parte hartu duten homosexual ugari hartzen dituelako. «Tenplu hau bisitatzen dutenak bakarrik ez daudela konturatzen dira», nabarmendu du. Horietako bat Diego Fernando da, 29 urtekoa, Jainkoaren Erresumako Eliza Unibertsaleko kide ohia. Gaur egungo Rioko alkate Marcelo Crivellaren eliza, hain zuzen. «Gorputzean deabrua nuela esaten zidaten, amaren sabelean nengoenetik nire baitan bizi zen espiritu gaizto bat», adierazi du.

“Deabrua kanporatzeko”, Diegok azaldu du beste “gaixokekin” batera ilaran jarri zutela eliztarren asanbladaren aurrean, alkoholikoekin edo drogen mende zeudenekin batera, «exorzismo» kolektiboko saioak egiteko. «Batzuk trantzean sartzen ziren, lurrera erortzen ziren, deabruak hartuta bezala. Niri ez zitzaidan horrelakorik gertatu», gogoratu du.

Diego ez da bere fedea eta orientazio sexuala bateratzeko sufritu duen Eliza Garaikide Kristauko kide bakarra. Gizar-

tearen gaitzespena izan dute bidaide, askotan familiarena berarena ere, eta asko euren burua hiltzeko zorian izan dira. «Hemen, besoak irekita hartzen gaituzte, aurreiritzirik gabe», eskertu du Katia Maria Soaresek. Duela bi urte senarra utzi eta Carolinarekin biziitzeko hautua egin zuen. Elkarrekin hezi dituzte Katiak senarrarekin izandako hiru haurrak.

«Eliza honetara etorri izan ez banintz, agian orain bakarrik egongo nintzateke etxean, mozkortuta eta guztiz abandonatuta», onartu du Joao Barbosak. 47 urteko erizaina Eliza Garaikide Kristauko kidea da hasieratik, lehen elizkizun klandestinoak etxeetan egiten zituzten garaitik.

Patricia Soares Carrilhok ere antzeko infernua sufritu du. «Nire buruaz beste egin nahi nuen, drogetan sartuta egon nintzen 22 urtez. Oso harreman konplexua nuen nire bikotekidearekin, baina orain dena ondo dago», kontatu du. «Jainkoari eskerrak emateko» Carrilhok drogak erosten zituen favelan bertan gizarte etxe bat ireki zuen. Han ezagutu zuen bere alaba Ana Beatrizen ama. «Hamar hilabete zituen adoptatu genuenean, eta orain bost urte ditu dagoeneko», adierazi du.

HAMAR TENPLU BRASILEN

Eliza Garaikide Kristauak hamar tenplu ditu gaur egun Brasil osoan. Baina urrun dago beste eliza ebanjelikoek duten boteretik. Adibidez, Jainkoaren Erreinuko Eliza Unibertsalak, duela 30 urte Emir Macedok fundatutako elizak, sei milioi fededun dituela aldarrikatzen du. Horien erdia Brasilen eta beste erdia atzerrian. «Guk Bibliaren berrirakurketa propo-



Goian, Fabio de Souza apaiza Katia Maria eta bere bikotekide Carolina besarkatzen, igandeko elizkizunean. Aurreko orrialdean, beste bi elizkide.
Apu GOMES | AFP

satzen dugu, itzulpenek jatorrizko idazkunak aldatu zituztelako», dio Eliza Garaikide Kristauko Marcos Gladstonek. «Eliza gezur hutsean bizi da. Ondo baino hobeto daki homosexualitatea ez dela bekaketa, Jainkoak ez duela kondenatzen bi lagun arteko maitasuna», defendatzen du Eliza Garaikide Kristauko fundatzaileetako batek. «Elizkizunetan gay ezkontzei buruzko informazioa ere ematen dugu», gaineratu du.

Eskritura Santuen interpretazioa guztiz kontrakoa bada ere, elizkizunak beste eliza ebanjelikoetan ikusten diren antzekoak dira. Ez dago ez ortzadarraren banderarik ezta LGBT lelorik ere. Abestiak, dantzak abesbatzaren gospel kantuen erritmoan, txaloak, saltoak, irakurketa biblikoak eta diru-bilketa bukaeran. Besterik ez. Brasilen indar handia hartzen ari diren gainontzeko eliza ebanjeliko gehienetan bezalaxe. Baina azken lerroan

dauden bi emakumek ez dute jai giroarekin bat egiten. Fabio apaizak azaldu du horietako batek alaba lesbiana dela jakin berri duela eta abesteko ohol-tzara igotzen denean iskanbila sortuko duela agindu duela. Azkenean, elizkizuna bukatu baino lehen, tenplua utzi du.

Barruan jai giroa nagusi den bitartean, kanpoan hainbat segurtasun agente zaintzaz arduratzen dira. «Ez da auzo arriskutsu batean gaudelako, Jainkoaren Asanblada hurbil dagoelako baizik, eta, Brasilgo beste eliza ebanjelikoak bezala, oso homofobia da», azaldu du Gladstonek. «Orain arte soilik 'deabruaren eliza' garelako oihukatzen digute aurretik pasatzerakoan», gaineratu du. «Hemen proposatzen dugun tratamendua aurreiritzien aurkako tratamendua da. Aurreiritziak dira sendatu beharreko gaixotasuna», amaitu du azalpena Fabioren senarrak.

«Eliza honetan, besoak irekita hartzen gaituzte, aurreiritzirik gabe. Etorri izan ez banintz, agian orain bakarrik egongo nintzateke etxean, mozkortuta eta guztiz abandonatuta»

Gaur egun, Eliza Garaikide Kristauak hamar tenplu ditu Brasil osoan. Baina oraindik oso urrun dago oso homofoboak diren gainontzeko eliza ebanjelikoek duten boteretik

ROHINGYAK: PARIEN PATUA

Myanmarrek gaitz ororen erruduntzat ditu.
Arrazoa emango ote diote azkenean?

 **MUNDUA /** Dabid LAZKANOITURBURU

Gaurko pariak dira rohingyak. Musulmanak gehiengo budistaren artean, Myanmarko trantsizioaren biktimak, Asia ekialdeko deskolonizazio prozesu ankerraren «errudunak», eta, azkenik, mundu osoan gora egin duen islamofobiaren harira, «terroristak». Arriskua azken hori egia bihurtzea da. Hori baita parien patua: profezia bete egiten dute. Gogoz kontra bada ere.

Milioi bat inguru dira Myanmarko Rakhine

estatuan bizi diren rohingyak. Zaila da zehazki zenbat diren jakitea, inork ez baititu zenbatu. Beste hainbeste dira dagoneko inguruko herrialdeetara ihes egin behar izan dutenak. Baina inork ez ditu nahi.

Munduko herri pariarik handiena osatzen dute egun rohingyek. Jada milioi erdi Bangladeshen zeuden eta beste hainbeste iritsi dira abuztu bukaeratik gaur arte –soilik joan den astelehenean 11.000–, Myanmar Armada beren herriak eta auzoak erre eta suntsitzen hasi zenetik.

Bangladeshek, 160 milioi biztanle dituen eskualdeko herrialderik txiroenak, ezin du gehiago; hala, errefuxiatu guztiak kanpamentu bakarrean biltzekotan da. Indiak ere ez ditu nahi eta etorkin ekonomikoak baino ez direla esaten du. Gure artean aitzakia ezaguna.

Myanmarren badira beste gutxiengo ugari ere –guztira 35 herri edo talde etniko dira: kachin, rakhine, karen, mon, shan, wu...–. Baina, beraien zorrigaitzerako, rohingyak musulmanak dira biztanleen (53 milioi) %90tik gora budistak diren Myanmarren. Eta horrek ez du barkamenik, batez ere

erlijioa aberriaren sustraia dela aldarrikatzen dutenentzat –bistan denez, ideia oker hori ez da soilik islamaren kontua–.

Rakhinen bertan 3 milioi biztanletik 1 baino ez da rohingya, besteak beste, garbiketa etnikoaren eraginez askok ihes egin behar izan dutelako azken hamarkadotan. 1978an lehenik, eta 1991 eta 1992 bitartean beste milaka eta milaka. Garbiketa etnikoa ez baita gaur eguneko kontua.

Milurteko aldaketarekin gauzak ez dira aldatu. 2012an, 2016an, eta, orain, 2017an, rohingyek erbestera bidaia luze eta arriskutsua hasi behar izan dute behin eta berriz. Bangladesh, Malaysia eta Indonesia izan dute helburu. Duela bost urtetik hona, baina, egoera erabat gaiztotu da. Myanmar Armadaren errepresioa nahikoa ez, eta Rakhineko monje budistek jomugan jarri dute “herri madarikatu” hau.

«BIN LADEN BUDISTA»

Ashin Wirathu bontzoaren gidaritzapean –*Budisten Bin Laden* ezizenarekin aurkezten du bere burua–, 969 mugimenduak bultzatu du azken urteetako garbiketa etnikoa. 969 mugimenduak budismoaren «hiru harribitxie» zor die izena: budaren 9 tasunak, bere ikasketen (*Dhamma*) 6 tasu-

nak eta monje budisten komunitateren 9 tasunak. 969. Aipatu zenbakia ikus daiteke Myanmar hiri eta herrietako denda eta taxieta, «budista onen ezaugarri». Horrela, budistek ez diete dirurik emango *kalar*-ei (musulmanak mespretxuz izendatzeko erabiltzen den iraina). Izan ere, Rakhineko rohingyak ez dira 969 mugimenduaren biktima bakarrak, baizik eta musulman guztiak, baita etnikoki birmaniarak direnak ere. Hori bai, jatorriz indiarak direnak dituzte bereziki jomugan, eta Rangun herrialdeko hiri-buru historikoan bertan ere *razzia* bortitzak jasan dituzte.

Ashin Wirathu bontzoa musulmanak azken 100 urteotan Myanmar konkistatzeko konspiratzen ari direla ziur omen dago. Pentsa, Myanmarren ematen diren bortxaketen «%100a musulmanak eginda-koak» dira...

ARMADAREN BABESA

Hala ere, analisten iritziz, monje budisten 969 mugimenduaren atzean Armada dago. Hau da, 50 urtez boterea zorrotz mantendu duen Junta Militarra.

1962an eman zuten estatu kolpea militarrek, Myanmarrek Pazifikoko Gerran jasadako japoniarren okupazioaren ostean Britainia Handia kolonizatzaile ohiak izandako behin-behineko agintaldia

Myanmarrek ez die herritartasunik onartzen eta Bangladesh txiroak ezin du milioi bat errefuxiaturekin. Indiak ere ez ditu nahi, etorkin ekonomikoak direla aitzakia hartuta



amaitu eta hamabost urtera. Mende erdian boterean egon ondoren, trantsizioari ekin zion Armadak 2011n, eta 2015ean hauteskunde demokratikoak egin ziren –hori bai, rohingyek ezin izan zuten bozkatu–. Aung San Suu Kyi Bakearen Nobel saridunaren Demokraziarako Liga Nazionalak aise irabazi zituen hauteskundeok. Hala ere, Armadak Parlamentuko eserlekuen %25 izendatzen ditu oraindik, aldaketa sakonak ekidin edo behintzat oztopatuz. Are, rohingyen krisia kudeatzeko –eta herrialdea kontrolpean izateko– ezinbestekoak diren Defentsa Ministerioa, Mugen Ministerioa eta Barne Ministerioa militarren esku daude oraindik. Eta Rakhineko estatuan bertan ere, militar bat da jaun eta jabe: Min Aung Hlaing jenerala.

Hala ere, trantsizioak aurrera egin ahala gero eta zeresan gutxiago izango duten beldur


Oinez edo txalupatan, ihes egitea beste aukerarik ez dute rohingyek. Asko ez dira helmugara iritsiko, uretan itota geratuko dira betiko.
Fred DUFOUR-Indranil MUKHERJEE | AFP

dira militarrek eta rohingyen krisia ondo baino hobeto datorkie bortizkeriaren aurrean ezinbestekoak izaten jarraitzen dutela erakusten saiatzeko. Armada monje budistak «bosgarren zutabea» bezala erabiltzen ari direla gero eta nabariagoa da. Beraz, joko bikoitza baina bizkorra da militarrek egiten ari direna.

ERANTZUKIZUN HISTORIKOA

Hala ere, eta militarren joko zikina ukatu gabe, rohingyen drama ez da soilik trantsizio korapilatsuaren ondorioa. Izan ere, herrialdeak 1948an independentzia lortu zuenetik, musulmanena konpondu gabeko auzia da, budismoa Estatu berriaren eraikuntzarako ardatz bezala erabili baitzuten hasiera-hasieratik.

Garai hartan abiatu ziren, Nazio Batuen Erakundearen hitzetan, «munduan ezagutzen den zapalketa handiene-



takoa jasaten duen etniaren aurkako garbiketa etnikoa eragin duten deslegitimazio politika etengabeak».

Horrela uler daiteke Aung San Suu Kyi presidenteak krisi honetan izan duen erantzun apala –militarrekin konplizitatea agertu duela salatu dute giza eskubideen aldeko hainbat erakunde–. Bakearen Nobel saridunak militarren presioa jasan duela ez dago zalantzarik, baina are garrantzitsuagoa da Myanmarko historiak duen «hasierako akatsaren» pisua.

Junta Militarra izan zen 1982an herritartasunari buruzko legea ezarri zuena. Bertan, 1823 baino lehen herrialdean bizi zirela frogatzen duten talde etnikoei soilik

onartzen zaie Myanmarko herritartasuna. Lege horrek rohingyen diskriminazioa erabat legezatu zuen. Horrela, bada, ezin dute bozkatu, ez dute bizilekuz aldatzeko eskubiderik, esklabotzaren pareko lan baldintzak pairatzen dituzte, lurrak lapurtu egiten dizkiete, ez dute ezkontzeko eta nahi beste adina seme-alaba izateko eskubiderik... Dozenaka milaka haur ez dira existitu ere egiten, inon erregistratu gabe daudelako.

Rhoghinyek duela bi mende baino lehenagotik bizi direla Myanmarren ziurtatzen dute, Arakan Erreinuaren garaitik hain zuzen. Bost axola. Myanmartarren gehiengoak rohingyak jatorriz Bengalakoak dire-

la ziur da, Bangladeshekoak. Britainiar kolonizazioaren eskutik Myanmarrera XIX. mendearen bukaeran iritsiak.

Egia da rohingyak Bangladesheko hego-ekialdeko hizkuntzan mintzatzen direla. Egia da ere historialari birmaniarrek 1950eko hamarkadara arte musulman sunitek osatutako talde etniko honen izena entzuten ere ez zela egiten diotela. Alabaina, ez dago garai hartako muga eta izendapenak harresi dialektikotzat hartzerik. Are gutxiago rohingyek beraien historia VIII. menderaino garamatzen Arakan Erreinuarekin hasten dela ziurtatzen dutenean. Horrela bada, XV. mendetik aurrera bertara iritsi ziren mer-

katari eta soldadu arabiar, mongol, turkiar eta bengalarren oinordekoak lirateke. Beste ikerlari batzuen iritziz, rohingyak arrotzak diren ideiak 1784an du oinarria, errege birmaniarrek Arakane Erreinua indarrez hartu eta ehunka milaka biztanle ihes egitera bultzatu zituen garaian; gehienek egungo Bangladeshera egin zuten ihes.

KOLONIZAZIOAREN ZAMA

Horrela uler daitezke rohingyen migrazioak, joaneak eta bueltakoak. Eta horrela atzematen da herritartasuna onartzeko data zergatik jarri zen 1823an, hau da, Birmaniaren eta Britainia Handiko inperioaren arteko gudaren hasiera-

ren. Azken batean, badirudi rohingyak Asiako ekialdeak pairatutako kolonizazio eta deskolonizazio prozesuen galtzaile eta errudun direla. Azken adibide gisa, Pakistanen aurkako gerraren ostean 1971n independentzia lortu zuen Bangladesh berak, rohingyen aurka egin zuen gerra errefuxiatuen etorrera saihesteko.

ISLAMOFOBIA NONAHI

Hau guztia gutxi balitz, azken urteotan mundu osoan gailentzen ari den islamofobia bera rohingyen hilarriaren laugarren eltzea bihurtu da. Orain dela gutxira arte «lurren lapurrak» besterik ez zirenak, «terrorista islamistak» dira orain Myanmarren eta beste herrial-



de askotako iritzi publikoaren begietara.

Ez dira santuak ere. 2016an sortu zen Arakaneko Rohingya Armada Salbatzailea (ARSA) gerrilla, eta, abuztuaren 25ean, Myanmar Armadako kuartelei eraso egin zien. Bada, hori aitzakia gisa erabili du Myanmarrek garbiketa etnikoa bultzatzeko. ARSAk Rakhi-
nen bizi den gutxiengo indiarren herrixka batzuk erre dituela ere salatu dute hainbat iturrik. Tamalez ohikoa da jipoitutako gizatalde ahulek artean ahulagoak direnen aurka egitea. Dena den, gerrilla, etengabe umiliatutako gazteek osatutako talde armatua baino ez da momentuz, eta ez dute armamentu moderno-

rik -matxeteak, aizkorak eta askoz gehiagorik ez-.

Txetxeniari matxinoekin eta tamil tigreekin alderatu dituenik bada. Palestinarren kasua ere aipatu da, herri bati mespretxuarekin eta errepresio bortitzarekin erantzuteak di-tuen ondorioen jakitun.

Hiru herri horien borroken porrota ikusita, ez dago ez rohingyentzat itxaropen han-dirik. Baina egoerak okerrera egin dezake, eta Al-Qaeda eta Estatu Islamikoaren moduko

Txetxeniarekin eta tamil tigreekin aldera daiteke rohingyen gerrilla, palestinarren drama ahaztu gabe. Baina analista batzuen ustez «kutsadura jihadistak» iritsi zaie jada

Bidaia arriskutsu baten ondoren, Bangladesheko mugan dituzte zain iheslariak errefuxiatuentzat eremuak.
Fred DUFOUR-Indranil MUKHERJEE | AFP

erakunde jihadistak zain dau-de, bertako gazteak erakartze-ko. Batzuen iritziz, «kutsadura jihadistak» iritsi zaie jada. Abuztu bukaerako enfren-tamentuetan gerrillari pakis-tandar eta indonesiarrak izan zirela azaldu dute lekukoek. Momentuz, musulmanen ar-teko elkartasunaren adibide bat izan daiteke ustezko «bri-gadistona».

International Crisis Group taldearen arabera, ARSA gerri-lla Saudi Arabiara joan eta ber-tan aberastutako etorkin rohingyek hornitzen dute. Ger-rillaren bultzatzaile nagusia jatorriz pakistandarra da, eta Saudi Arabian hazitakoa. AR-SAren aurpegia eta bideoetan gerrillaren erasoak beregain

hartzen dituen Ata Ullah ko-mandantea da, Saudi Arabiako diasporan jaiotakoa. Jakina da Saudi Arabia wahabismoa be-zala ezagutzen den islamaren adar ankerra zabaltzen ari dela munduan zehar.

Azken batean, herri oso bat paria izatera bultzatuz gero, horrek berak bultzatutako pa-tua ekar dezake ondorio gisa. “Terrorista islamistatzat” zi-tutzenak terrorista islamista bihur daitezke. Profeziaren biktimek, profezia egiazta de-zakete azkenerako. Hori bai, konturatzerako ez ote gara rohingyen “terrorismoaren” errudunak Riaden edo Was-hingtonen bilatzen arituko, errudun nagusiak Myanma-rran bertan daudela ahaztuta...



Saioa Aginako
Psikoterapeuta

Itsumustuan

Akaso aginduak jasotzen ohituegiak gaude? Hasieran, gurasoek etxean, geroago irakasleek eskolan, ondoren ugazabek lanean eta azkenik politikoez gizaratean. Kanpotik norbaitek baimena ematen digun arte ez dugu gure erabakiz aurea hartzen.

“Desobedientzia zibila” terminoa H.D. Thoreau filosofoak zabaldu zuen izenburu bereko idazlan batean XIX. mendearen erdialdean, eta, geroztik, asko izan dira guztiok ezagutzen ditugun auzi ezberdinengatik inposatutako arauei men egin ez dietenak, horien artean, besteak beste: Mahatma Gandhi, mugimendu sufragista eta Nelson Mandela. Eta, guk, zer egiten dugu besteek gure bizimoduan agintzeaz nazkatuta gaudenean?

Galdera horretarako erantzun modura –kalera protestara eta aldarrikatzera ateratzeaz gain– bakoitzak bere bizitza emozionalaren agintea hartzea ezinbestekoa dela esango nuke. Hori lortzeko inguru sozialak gudan jarri dituen itxaropenak alde batera utzi beharko genituzke, eta, era horretan, itxaropenok sorrarazten diguten presioa aurreikusten ikasi ahal izango genuke. Presioak nola eragiten digun ezagututa, emozioak alde batera uzteko ahalmena bereganatuko genuke eta, horrela, erabakiak inguruaren esku utzi beharrean, errazagoa izango litzaiguke erabakiak kontrolpean izatea. Bide batez, benetan zer behar dugun galdetuko genioke gure buruari.


Inguruak –talde bezala ulertuta– eta gizarateak gure erabakietan eragiteko duten eragina kontuan izanda, nor bere kabuz pentsatzeko heztea ez da erraza. Ahalegin eta ardura handia eskatzeaz gain, gutako askori haurtzaroan erakutsi ez diguten zerbait delako. Hala eta guztiz ere, gauzatu daitekeen erronka da.

Gaur egun oraindik ere zabaldua dagoen zigor-sari ereduak obeditzen erakusten digu. Horrela, agintariak diren helduak egoera eta faktoreak kontrolpean izatearen sentsazioa lortzen dute eta haurrek, berriz, otzan izaten ikasten dute. Hori egin beharrean, zergatik ez ditugu haurrak beraien ondorio eta hausnarketak sortzera bultzatzen? Zergatik erabiltzen ditugu larderia eta ezarpena gure haurrekin?

Nork bere kasa pentsatu dezan bultzatuz hezi nahi badugu, eta ez obeditzen bakarrik, zenbait estrategia izan behar ditugu kontuan; egunetik egunera haurrari bere burua definitzen eta mundua ulertzen lagunduko dioten estrategiak. Lehenik eta behin maitasunezko jarreratik abiatu beharko gara, horrela, ikaskuntza prozesuan beharrezkoa izango duen esker ona eskaini ahal izateaz aparte, bere berezko bidea egiteko aukera emango diogu. Erabilitako hizkuntza argia eta erraza izango da, berarentzat ulergarria izan dadin. Aldi berean, berak emandako arrazoibide eta

erabaki txikien aurrean ezinbestekoa izango da horiek arretaz entzun eta izan ditzaketen ondorioak azaltzea. Guk, helduok, alde aurretik baloratutako zenbait kasutan, haurrari berak hartutako erabaki txiki horien ondorioak esperimentatzen utziko diogu; modu horretan, berezko konklusioak atera eta aldi berean berezko ikaskuntzak lortu ditzan. Azkenik, garrantzitsua da hitzarmenetara iristea, haurrak ere, komunikazio, ulermen eta negoziazioen parte izatea, erakutsi nahi dizkiogun balioak eta elkarbizitza arauak ulermenetik garatu ditzan eta ez errepikapenaren ondorioz.

Mahatma Ghandik zioenez, lege bat bidegabea denean, bidezkoa dena desobeditzea da. •



Nor bere kabuz pentsatzen heztea ez da erraza. GAUR8

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Aurretik ekiteak beti errazten du bidea

Azken asteotan Kataluniako gertaera politikoak bertatik bertara bizi izanaren pribilegioa irakaspen iturri etengabea ere bada. Egun zirrargarri asko, zenbait pasarte txundigarri eta ondorio harrigarri ugari atera dira bidera. Politikagintzaren alorrean bat bakarra aukeratu behar izatekotan, iniziatiba izatearen balioa nabarmenduko nuke; aurrera egiteko, aurretik ekitearen komenigarritasuna, alegia.

Ikus dezagun bestela Urriaren 1ekoa. “Ezina ekinez egina” euskal esaera zaharra, “*Impossible is nothing*” nazioarteko eslogan bilakaturik 2017an. Aurreko egunetan erreferenduma bultzatzeko buru belarri lanean zebiltzanei ustez gaindiezinezko oztopoez galdetzen genienean, «lasai egon, ezin dizuegu ezer aurreratu baina dena aurreikusita dago», erantzuten ziguten ia aho batez. Nahi hutsa adierazten, errealitate faltsua irudikatzen ari zirela uste izan genuen orduan. Baina benetan ari ziren. Eta jakin bazekiten, noski, matxina-da miresgarri hori beraiek ari zirelako altxatzen, azpitik eta ezkutuan. Bete-betean asmatu zuten, lelo zaharrekin segituz “*Hecha la ley, hecha la trampa*” beti esku-ra den aukera delako, eta Mossoen eta beste eragileen kasuan, “*pase forala*” ere bertan delako, erabilgarri.

Ez hain handia, baina, Urriaren 10ean, pasa den asteartean, ustekabea hartu genuen berriz *Parlament*-ean, oraingoan ez herritarrek baizik eta Carles Puigdemont berak emana. Denborak esango du jokaldi hori irabazlea den ala ez, baina dudarik ez da espainiar agintariei espero ez zuten agertokia jarri ziela aurrean. Horrekin berriro bistarazi da iniziatiba izatearen balio erantsia. Tresna hori erabiltzen duenak abantaila garbia du, beste aldean norberak zer egingo duen zain egotera autokondenatuta dagoenaren aurrean. Iniziatibarik ez duenak, gainera, beti ezinbestean pentsatzen du A eta B aukerak baino ez dituela aurretik

doanak, bai ala ez, zuri ala beltz, independentzia adierazpena ala independentzia adierazpenik eza. Baina bien artean normalean erdiko aukerak, saihesbideak, zirrikituak... egon badaude, eta horiek aurretik doanak baino ez ditu aurreikusten.

Katalunian gauza batean ados dira alde batekoak zein bestekoak. Aurretik eta urrats sendoz ibiltzeak onura handiak ekarri dizkie independentziazaleei. Estatua boteretsuagoa izanik ere, atzean ibili da beti, segika, askotan harrapatu ezinean. Horregatik ireki berri den agertokian, Puigdemont berak galga zapaldu ostean, iniziatiba galduko ote den kezka da. Ikusiko dugu.

Euskal Herrira etorrita, azken urteotako geldialdiak –Iñigo Urkullu adierazle nagusi duena– iniziatiba

Katalunian gauza batean ados dira alde batekoak zein bestekoak. Aurretik eta urrats sendoz ibiltzeak onura handiak ekarri dizkie independentziazaleei. Estatua atzean ibili da beti, segika, harrapatu ezinik

galtze horrekin zerikusi handia du. Madrilen atzean kokatuta, ez dago bidea argi ikusterik. Ezker abertzaleari ere gertatu zitzaion, barne hausnarketetan aitortu duenez; Estatu espainolari aurrea hartu izan zionean, ausardiaz eta erabakitasunez, eskuratu zituen lorpenik handienak; eta Estatuari begira gelditu zenean, ordea, etorri zen motelaldia.

Iniziatiba horrek, jakina, aldebakartasuna du sinonimo, baina askoz ere ulergarriagoa da lehendabiziko hitza. Eta ezinbesteko oinarri, beldurrik eza, Kataluniako “*no tenim por*” entzutetsu hori. Azken finean, eta honakoa ere bertako irakaspena da, Estatu handi batek gure bi herriek baino askozaz gehiago duelako galtzeko. •

ESTAZIO HURA...

Durangoko tren geltoki zaharraren historiaren zenbait zertzelada

Ukaezina da tren geltokiek duten magnetismoa, izango da seguruenik pasadizo ugariren nahitaezko paisaia direlako, eta, horregatik, ukitu erromantikoa ezin zaielako ukatu. Trenaren zain dauden milioika bidaiarien aterpe diren eraikinak, hormak, nasak, tailerrak, kafe-tegiak, dendak... une historiko ugariren paisaia dira, eta milioika dira ere bertatik bertara bizi izan dituzten istorio arruntak, umilak... Baina horiek ere egiten dute herri baten historia.

Geltokiak begiratzeko modu asko dago. Zer paper jokatu duten une historiko ezberdinetan, zer suposatu duten ekonomiarako, zer-nolako eragina izan duten bizilagunen mugimenduetan, bizitzan... Galdera potoloek erantzun sakonak behar dituzte. Helburu horrekin, analisi sakonak baino oroitza-penak bilatu ditu GAUR8k. Durangoko geltoki zaharrera

 **HISTORIA /** Nerea GOTI

Durangoko estazio zaharretik geratzen den azken eraikina eraitsi zain dago. Trenbidea lurperatuta, geltoki berri batek ordezkutzen du zaharra. Komunikazioetan iraultza suposatu zuen linearen zentro neuralgikoa izan zen estazioa, eta historiaren lehen mailako protagonista. Berarekin batera Durangoko historia zati bat ere badoa.

hurbilduta, geratzen dena eta laster desagertuko den horretara azken bisita eginez, herriko paisaiatik guztiz ezabatuko den horrekin zer joango da galdetu diegu gertutik ezagutu dutenei.

KOMUNIKAZIOEN IRAULTZA

Denboran oso atzera begiratu behar da geltokia inauguratu zuten 1882ko maiatzaren 30a gogoratzeko. Bilbo eta Durango arteko lehen trenbidearen jaiotza zen. Gero beste linea batzuk etorriko ziren, estazioa handitu ahala. Argi dagoena da, bildutako testigantza guz-

tien arabera, benetako iraultza izan zela linea bai industria-ren garapenerako bai herritarren mugikortasunerako. Besteak beste, inguruetako herrietako bizilagunen arteko harremanak izugarri areagotzeko aukera eman baitzuen.

«Bilbotik Durangora ordubete eta 26 minutu. Kristorena zen hori, egungo abiadura handiko edozein tren baino askoz handiagoa!», nabarmendu du Jose Mari Uriarte Gerediaga elkarteko kideak. Kontuan hartu ordura arte «gurdiz, zaldiz edo oinez baino ezin zela Bilbora joan, eta ia

egun osoa behar zela joan eta itzultzeko», azaldu du lineak suposatu zuen aurrerapenaz jabe gaitzen.

ZENTRO NEURALGIKOA

Trenaren mundua izugarri maite duen Uriartek eta Juanjo Olaizola adituak berehala argitu duten bezala, “geltokia” eta “estazioa” terminoak argi bereizi behar dira. Ez dira gauza bera. Durangokoa ez zen bidaiarientzako aterpe den geltokia hutsa. Biek nabarmendu bezala, bertan tailerrak, nasak, subestazioak, biltegiak, kotxe-rak eta beste hainbat instalazio zeuden, eta hori «bidaiarien eraikin huts bat baino askoz gehiago da». Berez, linea osoaren zentro neuralgikoa Durangoko estazioa zen, eta horrek bestelako dimentsio bat ematen dio galduko den gune osoari.

Itzul gaitzen XIX. mende bukaera hartara eta koka gaitzen Bizkaiak izan zuen garapen industrialean, Bilbotik Durangora heldu ziren lehen trenek izandako garrantzi his-

Lerro hauen azpian, Durangoko tren geltokia eta ingurua, garaiko irudi panoramikoan. Ondoko orrialdean, tren baten lehenengo bagoia, Mikeldi Tabernan hartutako irudian.
GEREDIAAGA ELKARTEA-Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS



torikoa ulertzeko. Testuinguru horretan ulertu behar da zergatik eta zelan jaio zen 32 kilometroko bide estuko trenbidea hau, Kantauri osoko lehena. Olaizolak azaldu duenez, meategiek, siderurgiak, banketxe-ek... ekarritako garapen handiak komunikazio berriak behar zituen. Aurretik mar-txan jarritako beste trenbide proiektu erraldoi batzuek, bi-de zabalekoak, kostu ekonomi-ko handia suposatu zuten; ho-rien porrotak eta eragindako galera ekonomikoak proiektu berrientzako oztopo ziren. Orografiak ere ez zuen lagun-tzen, eta trenbidearen erai-kuntza merkatu behar zen. «Frantzian oso modan zegoen kontzeptua ekarri zuten: 3x15, 15 kiloko errailak (gaur egun 54koak), 15 tonako lokomoto-rrak (oso txikiak, egungoak 60 tonakoak dira) eta 15 kilome-tro orduko abiadura komer-tziala. Trenbide ekonomikoak ziren eta hori zen bilatu nahi zutena, ahalik eta merkeen izatea inbertsioa amortizatu eta dirua irabazteko, trenbide-

Bilbo eta Durango arteko trenbidea sekulako aurrerakuntza izan zen garairako, ordura arte gurdiz ala oinez baino ezin baitzen egin bidea. Egun osoa ematen zuten hiriburura joateko

Trenbidea ez zen bakarrik heldu Durangora. Bulegoak, tailerrak, biltegiak, kotxerak... ere bertan zeuden, eta, beraz, estazioa bidaiariak hartzeko eraikin hutsa baina askoz gehiago zen

ak inbertsio pribatuak baitzi-ren», zehaztu du Olaizolak.

LINEA BERRIAK

Aipatzekoa da linea Bilboko kapitalarekin egin zela, hori ez baitzen ohikoa. Bada, sekulako arrakasta izan zuen hasieratik. Izan ere, berehala ugaltu ziren antzeko proiektuak, La Robla-ko trenbidea kasu. Egun Eus-kal Herrian mantentzen diren bide estuko trenbideak inspi-ratu zituen Durango eta Bilbo arteko lineak, eta laster gehitu zitzaizkion egitasmo berriak.

Horren adibide da Durango bertatik Zumarragarainoko li-neak, Gipuzkoarekin lotura es-

FAXISTEN BONBEK SUNTSITU BAI BAINA EZ ZUTEN DESAGERRARAZI

Guda bete-betean, Durangoko estazioa bonben jomuga izan zen 1937ko martxoaren 31n. Juanjo Olaizolak, Gerediaga elkarteak kideak, azaldu duenez, «motibazio terrorista» argia izan zuen erasoak. Goizeko lehen bonbardaketa baten ostean, 15.45ak inguruan kanpai hotsak entzun ziren berriro. Nabaria zen hegazkinek bilatzen zuten puntua zein zen: geltokirantz zihoazen. Gerediaga elkarteak egindako dokumental historikoan jasotzen denez, hegazkinek trenbideko zabalgunea, tailerrak eta maristen ikastetxearen inguruak bonbardatu zituzten. «Herritarrak izutzea eta helburu militarrek kaltetzea» zen xedea, eta, zalantzarik ez, trenbidea lehen mailako helburu militarra zen. Olaizolak kontatu bezala, tropen mugimendu handia zegoen Bilbo eta Durango arteko trenbidean, bertatik hainbat gerra frontera joaten baitziren gudariak: Otxandio, Elgeta... Era berean, zenbait batailoik Durangon zeukaten kokalekua. Tropak mugitzeko ez ezik, elikagai eta armen hornidura ziurtatzeko ere funtsezkoa zen trenbidea.


Jon Irazabalek baieztatu bezala, trenbidea «komunikazio bide estrategikoa» zenez, guztia txikitzen aritu ziren hegazkinak, ez bakarrik linea bera: «Tailerrak ere helburu argia ziren, bertan ez ziren bakarrik mantentze lanak egiten, bagoiak ere bazeuden...».

ARRATSALDEAN, ESTAZIOA ETA TAILERRAK

Goizeko bonbardaketaren lehen helburua herritar zibilak izan ziren, baina arratsaldean estazioa eta tailerrak izan ziren sarraskiaren helburu nagusiak. «Txikituta geratu zen guztia, bonbak geltokian erori ziren, tailerretan... Geltokiak estaltzeko zeukan markesina metalikoa ere desagertu egin zen gerra ondoren», gogoratu du Olaizolak.

Garaiko errealitate soziopolitiko eta ekonomikoan Durangoko geltokiak zeukan protagonismo argia aipatzen da bonbardaketaren inguruan Gerediaga elkarteak egindako dokumental historikoan. Bertan gogoratzen denez, udalerrria lehen mailako bidegurutze bihurtu zen, eta, hala, XX. mendeko 30eko hamarkadan eskualdeko udalerrri garrantzitsuena bezala finkatu zen. Nekazaritza eta abeltzaintza oraindik jarduera ekonomiko nagusiak baziren ere, industriak pisu handia zeukan jada. 8.800 biztanle inguru zituen dagoeneko Durangok eta Ferrocarriles Vascongados enpresako lantegia inguruetako garrantzitsuenetakoa zen jada.





Langileak estazioan zeuden
tailerretan tren berrien
fabrikazioan lanean.
Alboan, bagoi berriak,
Mikeldin ikusgai dauden
argazkien bildumatik
hartutako irudia.
Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

trategikoa egin eta Irunera bi-
tarteko sistema azkar bat osa-
tzea ekarri zuena ibilbide la-
burtuz. Izan ere, aurretik
bilbotarrek Mirandaraino joan
behar zuten, gero Gasteizera,
Altsasura eta, azkenik, Irunera.

Garaiko bidaiarientzako
kristoren modernitatea izan
zen trena. Olaizolak hasierako
tren horiek zelakoak ziren go-
goratu du. Lehenik, bigarren
eta hirugarren klaseko ba-
goiak zeudela kontatu du. Ba-
goiek departamentuak zituz-
ten, eta bakoitzean hamar
lagun inguru kabitzen ziren.
Egurrezko eserlekuak eta leiho
txiki bat ziren barruko eros-
tasun bakarra. Hirugarren kla-
sekoak ziren gehien erabiltzen
ziren bagoiak, baina, zehaztu
duenez, kontuan hartu behar
da orduan trena ez zela erabil-
tzen egun egiten dugun mo-
dura; hau da, ez zen egunero
erabiltzen.

Hala ere, martxan jarri be-
zain pronto sekulako ospea
hartu zuen trenak bai Bizkaian
bai bertatik kanpo. Izan ere,

zerbitzu berria oso goraipatua
izan zen Estatu espainoleko
garaiko prentsan, batez ere
zeukan maiztasun handiaga-
tik: bost tren zeuden Bilbo eta
Durango artean, bost tren no-
ranzko bakoitzean –normale-
an bi izaten ziren egunean eta,
gehienez, hiru–.

BASERRITARRAK ETA LANGILEAK

Erabiltzaile gehienak baserri-
tarrak ziren. Garai hartan lan-
gileen mugimenduak ez ziren
hain ohikoak, gehienak lan-
postutik gertu bizi baitziren.
Industriaren pizkundearekin
langileek trenez egindako jo-
an-etorriak asko areagotuko
ziren, baina hasierako trenbi-
de hura baserritarrek erabil-
tzen zuten batik bat, euren
produktuak Bilbora saltzen
eramateko erabiltzen baitzu-
ten. Asteburuetako aisialdira-
ko ere erabiltzen zen hein ba-
tean, jaiegunetan Durangora
joateko, Urkiola bisitatzeko...

Jon Irazabal historiagile eta
Gerediaga elkarteko kideak ar-
gi du Durangoko estazioak

eragin itzela izan duela Du-
rangoko historian. «Herriko
historia sozial, politiko eta
ekonomikoaren lekuko eta
ikur izan da», nabarmendu
du. 1934ko Urriko Iraultzak
Durangon oihartzun handia
izan zuela gogoratu du, eta
matxinada horretako prota-
gonista nagusiak trenbideko
langileak izan zirela. Hildako-
ak ere izan ziren Durangon as-
tebeteko greba horrekin lotu-
ta izandako istiluetan. Herriko
PSOE, UGT, CCOO edo-
ta CNTren sorrera ere trenbi-
dearekin lotutako langileei
oso lotuta izan zen.

**Oraindik zutik den geltokiaren ondoan zeuden
tailerrak, lantegiak... Hala, Durangoko langile
mugimenduak bertan izan zuen hasiera, bertan
sortu ziren herriko lehenengo sindikatuak**

**Tren geltokiak berak interes arkitektoniko
berezirik ez badu ere, langileriaren ikur izan
zen hamarkada luzez eta bere garrantzi
historikoa ezin daiteke zalantzan jarri**

Irazabalek dioenez, lanbide,
ofizio, zerbitzu... ugari biltzen
ziren estazioaren inguruan.
Olaizolak berak eta Uriartek
nabarmendu bezala, zehaztu
du estazio gune hartan bazeu-
dela tailer handi bat, makine-
ria, kotxerak... baina baita lan-
gileentzako ekonomatoka ere.
«Ferrocarriles Vascongados
enpresak 1905ean eraiki zi-
tuen tailerrak han zeuden,
orain gutxi bota direnak. Bai-
na bertan ez ziren bakarrik
trenen mantentze lanak egi-
ten, tren berriak, bidaiari zein
merkantzientzat bagoiak, au-
tomotor elektrikoak... ere egi-
ten ziren», zehaztu du Olaizo-
lak. «Enpresaren bihotza zen,
tailerrez gain aginte postuak
ere Durangon zeuden, bidaiari-
ak hartzeko eraikinaren goi-
ko partean. Handik kontrola-
tzen zen Bilbo eta Donostiaren
arteko linea guztia».

ERREKADISTAK

Merkantzia mugimendu han-
dia ere izan zen Durangoko es-
tazioaren inguruan. Inguruan
zeuden lantegi askotan trenbi-
dea barruraino sartzen zen,
bagoiak lantegian bertan kar-
gatzeko. Irazabalek Mendiza-
bal enpresaren kasua aipatu
du, Europa osora zabaltzen
zen produkzioarekin karga-
tzen baitzituzten bagoiak.

Langileen trena bihurtzeaz
gain, baserritarrena izaten ere
jarraitu zuen. Inguruan “esne-
saltzaileen trena” izenarekin
ezagutzen zuten, baina Duran-
goko merkataritzan ere eragin
handia izan zuen. Inguruko
herrietako beste jarduera ba-
tzuetan ere eragin nabarmena
izan zuen, Zaldibarko bainue-
txea edota Elgoibarko labe ga-
raiak kasu.

Uriartek gogoratu duenez,
trenbideak ofizio berri asko
ekarri zituen Durangora. Erre-

kadisten kasua nabarmendu du. «Errekadistak oso ezagunak ziren Durangon. Egunero-egunero joaten ziren Bilbora, eta arduratzen ziren enkargatutako tramiteak egiteaz, erosketak... Gehienbat paketeak eramane eta ekartzen zituzten, oiha bat erosi behar bazen erosi egiten zuten...», azaldu du Uriartek.

Gaurko egunera itzulita, gehienek etsipenez hartzen dute geltokiaren desagertzea. Tailerrak-eta aspaldi bota zituzten trenbidearen lurperatze lanei bide emateko, eta orain bidaiarien geltokia baino ez da geratzen, laster desagertuko dena. Horma horiek desagertzearekin batera, «garai bateko ikur bat desagertuko da, Durangon oso inportantea izan den gune bat, eta subestazio elektrikoa baino ez da geratuko», azaldu du Jose Mari Uriartek.

Irazabalen ustez, era berean, herriko historiaren zati bat galduko da geltokiarekin. 135 urte izan dira, bai an ez edonolakoak, Euskal Herriak bizi dituen gertaera historiko gehienek aztarnaren bat utzi baitute komunikazio mailan estrategikoa izan zen linea horretan. «Durangoko historia politiko, sozialean eta ekonomikoan garrantzitsua izan den zerbait desagertuko da. Hurrengo durangarrek ez dute ezagutuko, subestazioa eta burdinazko zubi bi geldituko dira soilik. Hainbat palazio eta eraikin erlijioso kontserbatu ditugu, eta, aldiz, langileen katedralak, lantegi guztiak, langileen etxeak... desagertu egin dira».

GARRANTZIZKO ONDAREA

Durangoko estazioaren galera gelditzeko altxatu den ahots argienetako bat EH Bildurena

izan da, «garrantzizko ondare» baten desagertzea geldiaraztea helburu. Koalizioaren udal taldeak milioi bat euro baino gehiagoko kostu ekonomikoa izango duen geltokiaren eraispena bertan behera uzteko proposamena egin zuen Durangoko Udalean, eta, salatu duenez, aurrez aurre eraikinaren balio arkitektoniko ezaren argudioa baino ez zuen aurkitu. Zinegotzi independentisten iritziz, irizpide «pobre» eta «subjektiboa» da, «historia kolektiboaren parte den eraikin» bati buruz hitz egiten denean. Hala, munduan barnako hainbat esperientzia oinarri, «benetako azterketa eta eztabaida» eskatu eta eraikina berrera-biltzeko deia luzatu zuen.

EH Bilduko Durangoko zinegotzia den Dani Maeztuk artikulua batean salatu duenez, «garapen urbanistiko ba-

Askoren ustez, bitxia da hainbat eta hainbat jauregi eta eraikin erlijioso kontserbatzea eta historia politiko, sozial eta ekonomikoaren ikur diren «langileen katedralak» deuseztatzea

Estazioa «balio historiko eta kulturalako ondare industrial» da EH Bildurentzat. Herri erdi-erdian den «jabetza publikoko eraikin» bat «azterketarik gabe» bota behar den galdetu du

satiak» elementu asko «irentsi» ditu herrian. Hori eta beste hainbat arlo kontuan izanda, Durangoko estazio zaharra eraisteko proiektua birpentsatzea proposatu du.

Iñaki Uriarte arkitektoak ere gogor kritikatu du herriko historiaren garai baten «azken aztarna» den estazioa eraisteko egitasmoa. Durangoko estazioak eta zerbitzua eman zion lineak izandako garrantzia nabarmendu ditu,

historian zehar Ferrocarril Central de Bilbao enpresak lehenik, gero Ferrocarriles Vascogadosek eta azkenik Euskotrenek kudeatutako trenbide linearen ibilbide luzea nabarmenduz. Subestazio elektrikoaren kalitate arkitektonikoa aipatu du bereziki, baina, nabarmendu duenez, linea osoa, izan zuen eragina eta utzi duen memoria ezin dira besterik gabe ezabatu.

Suntsitutako tren bat
estazio ondoko gunean.
GEREDIAGA ELKARTEA





EXPRAI

iRRITZIA:



UMOREA ETA POLITIKA

Uxo Anduaga eta Laura Mintegi,
umorearen eraikuntzaz eta mugez

JENDARTEA / Xabier Izaga Gonzalez

«Jakin» aldizkariak, ETBko umore saio baten inguruan sortutako «iskanbilak» bultzatuta, «Umorea politikoa da» izenburuko alea argitaratu zuen. Besteak beste, Laura Mintegi eta Uxo Anduagak egin zuten beren ekarpena. Joan den astean, Gasteizen, umorearen eta politikaren arteko loturaz jardun zuten biek mahai inguru batean.

Umorea politikoa da. Ez da galdetza, baieztapena baizik, eta “Jakin” aldizkariaren 220. zenbakiaren izenburua, horixe baitu «abiapuntu eta ondorio», zenbait artikulua eskainiz, Iñigo Aranbarri idaz-

learena, Uxo Anduaga soziologoarena, Laura Mintegi idazle eta EHUKo irakaslearena, Unai Iturriaga bertsolari, gidoigile eta irudigilearena eta Mario Zubiaga eta Edorta Arana EHUKo irakasle eta EMAN ikerketa taldeko kideena, hain zuzen. Izenburu bereko mahai ingurua izan zen joan den astean

Iñigo Astiz kazetariak gidatu zuen mahai ingurua.
Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

Gasteizko Oihaneder Euskaren Etxean. Uxo Anduagak eta Laura Mintegik, Iñigo Astiz kazetariak gidatuta, umorearen eraikuntzaz eta mugez hitz egin zuten. Ordubete pasatzoko solasak, gauza interesgarri ugari entzuteko aukera eman zuten eta GAUR8k haietako batzuk jasotitu. Lorea Agirre “Jakin”-eko zuzendariak mahai ingurua hasi baino lehenago gai hori aukeratu izanaren zergatia azaldu zuen, udaberrian ETB1eko “Euskalduna naiz, eta zu?” saioaren inguruan izan zen polemika; hain zuzen, saio «iskanbila iturri» bihurtu izana.

Mintegik, PEN Klubeko kide ere badenak, adierazpen askatasunaren aldeko aktibista gisa heldu zion solasari. Iñigo Astizek galdetuta, esan zuen ezin duela zehaztu noiz konturatu



zen umorearen eta politikaren arteko loturaz; hala ere, frankismo garaian, unibertsitatean, ba omen zekien umorea presio frankista saihesteko tresna zela, eta umorearen bidez posible zela bestela esaterik ez zegoena esatea. Esan zuenez, diktaduran bizi izan diren herriak adierazpen askatasunaren aurkako presioa astintzen saiatu dira, esan ezin dena kodetuz, gauza bat esanez jendeak beste bat ulertuko duela jakinda. Uxoa-Anduagari irakurritakoa aipatu zuen ondoren, umoreak taldea eratzen duela, hain zuzen. Zeri barre egiten zaion, jendeak taldea egiten omen du. Eta ondoren, gizarte kohesionatuetan, demokratikoetan, norberaren jokaeraz barre egin ahal dela esan zuen, «norberaren buruaz ere trufa egitea autokritikarako bide bat da». Aldiz, «zenbat eta gizarte polarizatuagoetan, orduan eta irentsiezinagoa da nork bere buruaz barre egitea». Botereak, politikoak zein erlijiosoak, bitartean, ez omen du inoiz bere buruaz barre egiten.

Anduagak denbora luzea eman du umorearen barne mekanismoak aztertzen, horixe baita iaz aurkeztu zuen doktore tesiareen gaia. Haren ustez, orain umore asko egiten da eta horretarako baliabide gehiago daude: Internet, telebista... Umore anitzagoa egiten dela dio. «Umorea ez da zuria, ez dago ezer esaten ez duen umorerik, umoreak beti esaten du zerbait, agian ez modu esplizituan baina bai zeharka. Beti ematen du iritzi bat, beti hartzen du posizio bat». Eta uste du hori beharbada biderkatu egin dela orain, eta horrek boterean dagoenak, *statu quo*-ak, pentsatzen ez dituenaz bestelako diskurtsoak dakartzala. Haren ustez, Mahomaren irudiaren bueltan hasi zen bereziki umorearen marra gorrien inguruko eztabaida, adierazpen as-

katasuna zein puntutaraino utzi behar den...

UMOREAK ERAGINDAKO HAUSTURA

Astizek gogorarazi zuen Laura Mintegik “Jakín”-en idatzi zuen artikuluko pasadizo esanguratsu bat, Mahomaren karikaturen harira PEN Klubak egin zuen bilkura monografikoan gertatu zen «zisma moduko» haren gainekoa, hain zuzen. Nola bizi izan zuen hura galdetuzion idazleari. Hark azaldu zuenez, Mahomaren irudikapenak egitea debekatuta dago, modu positiboan eginda ere, idolatriatzat jota. “Jyllnads-Posten” aldizkariak fenomeno horren gaineko artikulua bat argitaratu zuen, eta Mahomaren irudia erabil-

tzea erabaki zuen, artikulua ilustratzeko. Erreakzioa ikaragarria izan zen, herrialde arabiarretan Mendebaldeko enbaxaden aurka izan ziren erasoen ondorioz ehun hildako izan baitziren, lehenik Danimarkako Gobernuak eta gero beste batzuek erabaki zutelako aldizkari hura eta adierazpen askatasuna babestea, ezer sakraturik ez dagoela esanez. Bineta haiek argitaratu eta hurrengo urtean bilera monografiko bat egin zuen PEN Klubak, non eta Istanbulen. Bilera hartan ez zuten adostasunik lortu eta bi manifestu atera zituzten. Ekialdekoek, batez ere herri musulmanetakoek, bada-goela muga bat zioten, sinesmena dela muga, eta, gainera, mu-

gatu egin beharra dagoela hedabideen «erabilpen maltzur eta gezurtia». Mendebaldekoen iritziz, ez dago ezer sakraturik, adierazpen askatasunak ez du mugarik. Edozer, edonoiz, edonon esan daiteke, eta Mintegik bere egiten du jarrera hori, baina «oso arduratuta». Momentu haietan Mendebaldean oso neurri gogorak ezartzen ari ziren New Yorkeko Dorre Bikien aurkako eraso zela eta. AEBetan hasi eta ondoren Mendebalde osora hedatu ziren lege haiek adierazpen askatasuna mugatzen zuten, besteak beste kazetarien kontrol hertsia jasotzen baitzuten.

Mendebaldeko kontraesan horri heldu zion Anduagak ere.

Estatu espainolean ere ba omen daude oso sakratuak diren hainbat kontu, baita Euskal Herrian ere; «nire ustez zoritzarrez», badaude oraindik sakratuak diren hainbat esparru. Bere tesirako, hainbat joera ideologikoko pertsonak elkarriketatatu zituen. Umorea zeren gainean egin daitekeen galdetuta, elkarriketatuta batek inporta ez duten gauzen gainean egin daitekeela zioen, adibidez, euskararen gainean, baina inola ere ez benetan inporta duten gauzen gainean, esate baterako, ETaren biktimen gainean. Beste aldean, horrelako mugarik ez izatea nahi luketen batzuk topatu zituen, baina aitortzen zuten ez direla iristen, esate baterako, euskal presoengururuan umorea egin ahal izatera. Eta faltan botatzen dute. Bi umore joera desberdin, umorea erabiltzeko eta bizitzeko modu desberdinak: bata, zilegitasunaren kontuarekin lotua dagoena, esparru publikoan egin daitekeena, eta, bestea, esparru intimoago edo klandestinoagoetara mugatua dagoena. «Badago politikoki zuzena edo sakratua den horren kontzientzia bat, nahiz eta guk pentsatu ez dugula horretan sinisten; ziurrenik, hor ditugu langa batzuk».

EUSKALDUNEN GAINEKO UMOREA

Teorian ez dago ezer sakraturik, baina praktikan botere mekanismo batzuk daude, besteak beste Anduagak bere artikuluan aipatzen duen euskaldunen inguruko umorea. Umorea bitarteko politiko gisa erabiltzen baita, eta argi ikusi omen zuen Anduagak, kasu honetan umiliatzeko asmoz, bazterkeria sortzeko, identitate euskaldun nazionalista batekiko, identitate batekiko lotsa eragiteko.

Euskaldunen gaineko horrelako umorea, txisteak-eta, bereziki XIX. mendean sortu zen,



Uxoa Anduaga soziologoa, Gasteizko mahai inguruan. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

«euskal nazionalismoa sortu zenean. Espainiatik euskaldunen kontrako txiste olatua etorri zen, estereotipoak: mozkortiak, jatunak, baserritarrak, gaztele-raz gaizki egiten dutenak, eta abar. Estereotipo haiek indartu egin ziren, batez ere frankismoan. Frankismoan, urteetan zehar, batez ere euskara eta euskal hiztunak kolpatzen dituen horrek bilakaera bat izan zuen». Haren ustez, “Vaya Semanita” saioak bere egin zuen umore hori. XIX. mendean eta frankismoan, euskaldun identitatea zuenak oro har ez omen zuen umore hura kontsumitzen, eta orain euskaldun askok eta askok kontsumitzen dute. «Beharbada kolonizazio kultural baten ondorioz, mendeetan egiten dena, gure buruaren irudi bat barneratu dugu, baserritar estereotipo horrekin zerikusia duena», eta ETBn ikusi diren iragarki batzuek horren adierazgarri direla gaineratu zuen.

Mintegik Mendebaldeko kontraesanei heldu zien berriro. Ez omen dago mugarik, baina, esate baterako, Austrian eta beste zenbait herrialdetan debekatuta eta zigortuta dago negazionista izatea, norbaitek esaten badu ez dela genozidio-rik existitu, gezurra dela sei milioi judu hil zituztela, epaitu egiten dute eta kartzela zigorra jasoko du. Eta herrialde horiek berek, esaten dute Mahomarekin posible dela barre egitea.

Estatu espainiarrean birao delitua dagoela eta Xabier Silveira bertsolariari Gipuzkoako epaitegi batek «*me cago en la virgen*» idazteagatik ezarri zion zigorra gogora ekarri zuen. Sinismenaren gaineko trufa ez dela delitua esan eta etxean bestela jokatzeko dute, muga jartzen da. Irain delitua ere badago. Irainduak iraintzailea sala dezake, eta azken horrek errugabea dela frogatu behar



du. Gogorarazi zuen nola 1996an Enrique Rodríguez Galindo iraindua sentitu zen Txalaparta argitaletxearen bi libururengatik eta nola bost milioi pezetako isuna ezarri zioten argitaletxeari; edo Soziedad Alkoholika eta Negu Gorriak musika taldeek eta Asier Serranok beren letrengatik jasandako jazarpena. Gainera, Galindo letra horiek salatutako kasuetan biktimarioa izanda eta ez biktima.

UMORE APOSTATA

Astizek esan zuen “Jakín” aldizkariaren azken aleko artikuluak irakurri ahala etsipen puntu bat nagusitu zitzaioela. Umorea boterearen tresna izanda, esperantzarik zabaltzerik ote dagoen jakin nahi izan zuen, umorea kontrabotererako tresna ere izan daitekeen galdetuta.

Anduagaren ustez, umorea tresna politikoa dela ulertzen badugu, teoriarik beste aldeak ere erabil dezake. Sistemak bere ikuspegia ezartzen saiatuko

da *statu quo*-a iraunarazteko, haren diskurtso guztiak txikia dena txiki uzteko eta bere handitasunean segitzeko izango dira, baina txikiak ere erabil dezake kontrabotere gisa, eta boterearen kontrako umore horri “apostata” deitu zion, hitz horren jatorrizko zentzuan; botereak sortzen duen errealitateari uko egiten diona, alegia. Haren ustez, aukera ematen du iraularazteko, baina baita errealitate berriak sortzeko ere, ikuspegi diskurtsibo berriak zabaltzeko, eta horretara animatu

Laura Mintegi, idazle,
EHUko irakasle eta
adierazpen
askatasunaren aldeko
aktibista.
JuananRUIZ | ARGAZKI PRESS

Diktaduran bizi izan diren herriak adierazpen askatasunaren aurkako presioa astintzen saiatu dira, esan ezin dena kodetuz, gauza bat esanez jendeak beste bat ulertuko duela jakinda

«Beharbada kolonizazio kultural baten ondorioz, mendeetan egiten dena, gure buruaren irudi bat barneratu dugu, baserritar estereotipo horrekin zerikusia duena»

zuen. Badagoela esperantza puntu hori uste du; ez zegoen zerbait sortzeko aukera ematen duela eta irabazi beharreko esparrua dela. Presoen gaineko umorera bueltatuta, elkarriketatutako lagun batzuek esan omen zioten: «guk ez badugu aurea hartzen, beste norbait hasiko da». Elkarriketetan ikusi zuenez, umore apostata hori erabili nahi zutenek argi omen zeukaten, eta umore hori modu erdi klandestinoan egiten dutenean, bestelako nazio bat, bestelako subjektu bat eta halako mikroklima bat sortzen dela dio, «une batez bada ere», nazio identitatea sortzen da, euskalduntasuna ulertu eta bizitzeko modu berri bat. «Ez gara ari bakarrik diskurtso batez, baizik eta praktika batez, eta identitate bat sortzeko modu batez». Umorea herri bat sortzeko birtarteko politiko oso ahaltsua omen da, jendeak filtrorik gabe barneratzen duen diskurtsoa, eta, gainera, barrea eragiten badu, berehalako difusioa duena.

Bat etorri zen Mintegi, baina horretarako ezinbesteko baldintza bat behar dela esan zuen; umoregileak autozentsurarik ez egitea, alegia. «Badago zentsura bat, erregimen gogoren pekoa, gogorra dena, Estatuko funtzionarioen bidez aplikatua, baina batzuetan badago beste zentsura bat, esate baterako ekonomikoa, hedabideak itotzeko helburua duena. Eta bestetik badago zentsura ezku-tuago bat, sakonagoa: nork bere buruari ezartzen diona. Horrek pobretu egiten du bai sortzailearen produkzioa bai komunitate osoa». Autozentsurak hiru fase dituela esan zuen: gaiaren aukeraketa, gai horretaz zer esan erabakitzea eta norberaren lana berriz irakurtzea, zentsuraren begietatik. Haren ustez, autozentsura egitea boterearen lana egitea da.



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Harrokeriaz

Identitatea. Hitz erraldoi bezain intimo hori. Nor zaren, zer zaren, zerk egiten zaituen nor eta nork egiten zaituen zer; zaren hori zuk izendatua den edo beste norbaitek jarri ote zizun izena. Zarenaren eta besteek egiten zaituztenaren artean dagoen amildegia hori. Identitatea.

Andeetan, Argentinaren eta Boliviaren arteko muga inguruan, bada ospe handiko kantari bat: Bruno Arias. Bere kantu batean Kollaren istorioa kontatzen du: turistentzako dibertsio huts izateaz nazkatuta, uzta txarrek nekatuta eta meatzaritzarako lurrean etengabe egindako zuloek amorratuta bere jatorrizko herria utzi eta hiriburura joango da, bere hizkuntza eta janzkerak baztertuta. Eta *villa* edo bazter auzo bateko etorkin soil bihurtuta arrotz sentituko du bere burua ingurukoek himnoa kantatzen dutenean. Bere begi indigenek ez dute ulertuko urriaren 12an zer ospatzen duen jendeak. Identitatea. Sarraski hori.

Gogoratzen naiz bertso-eskolan hasi ginenean nola neskak gehiago ziren mutilak baino. Eskola hasteko elkarrekin bertso-sorta bat kantatzen genuen, eta ondoren iristen zen bat-batean aritzeko txanda. Irakasleak gai orokor bat jartzen zuen, nahi zuenak kanta zezan. Eta umetan denok kantatzen genuen, gure trakeskeria, hankaluze, poto eta herrenekin. Baina nerabegarora heldu, eta, hara: ordura arte bertso erdian tratatuta ere lasai geratzen zena buruari bueltaka hasten zen; “lotsa” izeneko zomorro bixi hura hasi zen besteen hitzak irensten. Eta astetik atera gutxituz eta gutxituz joan ziren bertso-eskolako kideak. Geratu ginenak ez ginen bertsoan ondoen aritzen ginenak, aritzeak kontraesan gutxien sortzen

zizkigunak baizik. Kasualitatez, ia ez zen neskarik geratu. Gerora jakin nuen utzi zuten horietako askorentzat zeinen gogorra zen bestean aurrean tratatzea, huts egitea, esan nahi zutena esan nahi zuten bezala esatera ez iristea. Filmek, inguruak eta munduak esaten zienaren kontra-koa egitera behartzen zituen erratzkirten haren aurrera atera eta kantatzeak. Identitatea. Eginez eraikitzen den armadura estu hori.

Badirelako identitate batzuk plaza-tik eta boteretik baztertu direnak. Horregatik oraindik ere konplizitate berezi bat sortzen da Donostiako Alde Zaharrean udako masifikazioan euskaraz hizketan sumatu dugun harekin, edo kontrolen batean gure autoaren aldamenean geratu duten autoko

gidariarekin. Ez naiz ni bandera eta ikur zalea, baina uler dezaket euskal hiltunen proportzioa lausoena den inguruetan euskaraz ozenxeago hitz egiten duenaren autoestimua ariketa, edo matrikulan ardi latsa jartzen duenarena. Ikusezina izateari utzi nahi hori. Eta horregatik egiten zait harri-garria hemen, Donostiako portuko itsas komandantzian, dagoen Espainiako bandera erraldoi hori; edo udaletxe bakoitzean jartzen dena; edo Madrilén, Valentzian eta Espainiako beste hiri askotan egin den banderen eta zezenen erakustaldi hori. Botereak etengabe bere boterea erakutsi behar hori. Zertarako erakusten du bere burua lehendik ere erdigunean, denen bistan dagoenak? Akaso harrokeriaren oinarria horixe delako: autoestimua falta. •



Zergatik erakusten du bere burua lehendik ere erdigunean dagoenak?

Jon URBE | ARGAZKI PRESS

{ koaderno } **Nerea Ibarzabal**

Beti hor, baina

Umetan banuen praka pare bat laranja koloreko pintura orban batekin; gogoandut zein egunetan zikindu nituen, arte-eskolan izan zen, txakurkume batzuen koadro bat margotzen nabilela. Han igarotako arratsalde guztiak informazio eta irudi multzo lauso bilakatu zaizkit, baina prakak zikindu nituen egunean zertaz hitz egin genuen ere oroitzen naiz. Orban laranja hark lortu zuen ezer apartekorik izan ez zuen egun hark etorkizunean irautea, prakak janzen nituen bakoitzean oroitzea nola erori zitzaidan tanta izterrera, eta zer esan nuen gero, eta nola ama etorri zitzaidan bila 18:00etan eta esan zidan oleoa ez dela joaten garbigailuan mila aldiz sartuta ere.

Antzerako zerbait gertatu zitzaidan jertse zuria arrain-zopaz zikindu nuenean, edo kulero berriak hileko, edo praka bakeroak belar marka berdez. Orbanari begiratu eta uneaz oroitzen nintzen, egun horiek existitu ziren berme bakar gisa. Eta orbanek iragana aldarrikatzen dutelako dator, agian, etorkizun urruneko pertsona bat garbigailurako xaboiak iragartzera. Historia ezabatzeke.

Beharbada, zu ere horrela ohartuko zinen badirela moduak jendeari gauzak oroitarazteko, eta gauza horien artean, zeu. Ze zuk batzuk ahaztu nahi dituzun indar berarekin nahi duzu beste batzuek zu oroitu zaitzaten. Horregatik gainezka egiten dagoen zopa platerkada bat bazina bezala zoaz bizitzatik, ertzetatik darizula, ukitzen duzun hori zikindu nahian. CSiko kapitulu bat, baina alderantziz, gaizkileak ahalik eta arrasto gehien utzi beharko balu bezala.

Horrela uzten dituzu zure ile luzeak autoko eserlekuetan, inoren jertseetan, bizarretan. Gero ile laburrago batzuk izaretan, edo ezpain ertzen batean. Orban zuriak uzten ere badakizu, eta toallak gorritz zikintzen ere bai noizbehinka. Malkoak eta mukiak, besteen ka-

miseten sorbaldetan. Betileak burkoan. Zure azaleko izerdia bestearen azalean. Aurpegitik pasatu duzun toallatxo desmakillatzailea mesanotxean. Agurtzerakoan, masailean muxu busti bat, haizeak hoztuko duena urrundu ahala.

Zure DNA oparitut zoaz, agian inkontzienteki, baina agian ez. Zuk badakizulako zer den norbaiten zatiak gorde nahi izatea, ileak, usaina, muxuak, puzzle bat bezala osatu ahal izateko falta denean. Orbanari begiratu eta uneaz oroitu. Eta hori erraztu nahi diezu besteei ere, agian inkontzienteki, edo agian ez. Baina ez daitezela zutaz ahaztu.

Ze zutaz ahazten badira eta zoriontsu baldin badira zugan pentsatu gabe, eta etorkizunetik ekarritako xaboiaren batek –denborak agian– zuk utzitako aztarna denak ezabatzea lortzen badu, beharbada esan nahiko

Zure DNA oparitu zoaz, agian inkontziente, baina agian ez. Zuk badakizulako zer den norbaiten zatiak gorde nahi izatea, ileak, usaina, muxuak, puzzle bat bezala osatu ahal izateko falta denean

du ez zinela horrenbesterakoa izan. Horregatik, DNA arrastoak ia desagertu arren, beti geratzen da zure arroparen bat armairuren batean, «pasako naiz bila» bat eskegita duela. Edo zure hatz-markaz jositako liburu bat apalean, «lasai, itzuliko didazu». Edo urtebetezko opari handi hura, bere gelan jarri zuena. Eta, nola ez, hortzetako eskuilak abandonatuta plastikozko basoetan, lehen esaten zenituen hitzen testigu gertuko, eta orain diskurtsoz aldatu duzula jakin gabe, zure zain –gauzak uztearena gaizki ulertu zenuen–. Eta orbanak orbain, horrela ere ezin ziurtatu zutaz oroituko direnik zu beraietaz beste. Aldebakarreko oroimena baita izutzen zaituena. •

Mayday-terra-
n e o
proiek-
tuaren
lehen

misiotik bueltatu berri da Iñigo Gutierrez donostiarra. Hiru gobernu kanpoko erakunde-
ren elkarlanaren ondorio da
proiektua: Sevillako Proem-
Aid, Alemaniako Lifeline eta
Gipuzkoako Itsas Salbamendu
Humanitarioa.

Misio bakoitza hamabost egunekoa bada ere, lehenengo honi kostatu egin zaio mar-
txan jartzea arazo burokrati-
koak tarteko. Azkenean, hamar bat egun eman dituzte Libiako
itsasertz parean, «Mediterra-
neoko heriotzaren korridore-
an», nahiz eta egun bakarrean
atera diren erreskatara. Hori
bai, egun bakarrean 315 pertso-
na salbatu dituzte eta Libiako
kostazainen eraso sufritu du-
te. 2017ko irailaren 26a memo-
rian ondo iltzatuta geratuko
zaio zalantzarik gabe Iñigo Gu-
tierrezi.

**Nola iritsi zinen Itsas Salba-
mendu Humanitariora? Zerk
bultzatuta?**

Nagusiki itsasoarekiko maita-
sunak. Urpekaritza irakaslea
naiz. Aitak sartu zidan kresala
zainetan eta erakutsi zidan
itsasoa bizi iturria dela. Giza-
teriaren parte onenaren moto-
rra itsasoa dela uste dut. Ho-
rrez gain, 2015eko iraileko
Aylan haur siriarren argazkiak
puskatu egin ninduen. Hiru
urteko haurra hondartzan hil-
da. Argazki horrek erabat des-
kolokatu ninduen, haserretu
egin nintzen eta boluntario
aurkeztu nintzen. Hasiera ba-
tean ezezkoa eman zidaten,
sorosleak topatzen ari zirelako
eta ni ez naizelako soroslea.
Arazoren bat izan zuten eta

«Bizitza arriskuan
jartzen dute
bizitza salbatzeko
azken aukera
gisa»

jendea falta zitzaien. 2015eko
abenduan deitu zidaten eta 48
ordutan Greziara bidaiatzeko
prest ote nengoen galdetu.
Baiezkoa eman nien berehala.
2015eko Gabonak Greziako
Kios uhartean eman genituen
jendea uretatik ateratzen.

**Taldearen filosofia da uretara
sartu beharra dagoela erres-
kateak egitera. Ezin dela urer-
tzean itxaron.**

Urertzera gutxi iristen dira.
Baina hasieran agertokia oso
desberdina zen. Greziako kos-
tatik Turkiako kosta bertan
ikusten da, nahiz eta askotan
itsasora sartu behar den la-
guntzera. Baina gure lanaren
muinean filosofia bakarra da-
go: bizitzaren oinarritzko esku-
bidea defendatzea. Ulertzen
dugu itsasoan arriskua dagoen
pertsona orok duela erreskata-
tua izateko eskubidea.

**Itsasoan, erabat prekariorak
diren ontzietan eta jendea
erabat pilatuta. Arrisku asko-
txo.**

Europak hildakoak kontatzen
ditu, ez desagertutakoak. Au-
rretik bagenekien desagertuta-
ko asko zeudela, baina behin
bertan egonda, askoz garbiago
dugu errealitate hori. Itsasoa
egundokoa da eta zu, itsasoan,
tantatxo bat baino ez zara. Ha-
mar metrotik hoge metro bi-
tarteko ontzi bat eta inongo
erreflektorerik gabe. Hori ez
da ezer itsasoaren handitasu-
nean.

**Eta barruan datozenak ez dira
itsasoan ibiliak.**

Ez dakite non dauden ere.
Gehienek ez dute sekula itsa-
soa ikusi eta ez dakite igeri
egiten. Libiako kostatik petro-
lio plataformak ikusten dira.
Gauetz, argia egiten dute erre-
gaia erretzen ari direlako. Itsa-

IÑIGO GUTIERREZ

**ITSAS SALBAMENDU
HUMANITARIOA**

Kantauri itsasoari begira kontatu du duela

egun batzuk Mediterraneoan bizitakoa,


Libiako kosta parean, heriotzaren

korridorean. Egun bakarrean hiru ontzi

erreskatatu zituzten, 315 pertsona.

”

«Ez dakite non dauden ere. Gehienek ez dute sekula itsasoa ikusi eta ez dakite igeri egiten. Libiako kostatik petrolio plataformak ikusten dira. Gauez, argia egiten dute, erregaia erretzen ari direlako, eta hori Europa dela esaten diete»



Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

soratzen direnei esaten diete argi hori Europa dela. Europa, baina, 120 miliara dago. Ezerezero bidaiatzea da, hilketa bat.

Ezerezera bidaia. Baina, hala ere, ehunka lagun igotzen dira egunero bidaia horretara.

Gizartean gero eta zabalduago dago eskuin muturraren diskurtsoa: laguntza bila datoze-la, bizitokia oparitu egiten ditela... Jende asko ikusi dut bidean eta ez dut inor ikusi helburu horiekin. Jendeak bere etxetik ihes egiten du hiltzen ari direlako, balaz edota gosez, baina akabatu egingo dituztela sentitzen dute. Eta hiltzearen eta ihes egitearen artean, bigarren aukera horren alde egiten dute. Inork ez du bere familia osoa ontzi kaskar batean jartzen diru laguntza baten bila etorri eta amets europarra bizitzeko. Gatazka to-

kietatik ihesi datoz. Muturreko egoera horietan, bada errenditu eta hil egingo dela onartzen duen jendea eta bada bere bizitzaren alde azkeneraino borrokatzen dena. Bizitza arriskuan jartzen dute bizitza salbatzeko azken aukera gisa.

Irailaren 26an guztira lau ontzi erreskatatu zenituzten.

Oso goiz abiatu ginen. Goizeko zortziak pasatxo jo zuen alar-mak eta lanean hasi ginen. Lehen orduan egurrezko bi ontzi topatu genituen, 55 lagun zeuden batean eta, bestean, 65. Ez zeuden hain egoera txarrean, zorte pixka batekin bost bat egun iraun zezaketen itsasoan. Haiek erreskatatu eta inguruak zaintzera atera ginen erreskateko txalupan. Orduan ikusi genuen gomazko ontzi bat, oso egoera kaskarrean, eta bertan berrehun bat lagun

kinka larrian. Nire bizitzan ikusi dudak gauzarik surrealistena. Bederatzi haur, zazpi emakume eta, gainontzekoak, gizonezkoak. Gerturatu egin ginen, egoeraren azterketa bat egin eta gure Lifeline itsasontziari abisua emateko. Gure begien aurrean zulatu zen gomazko ontziaren alde bat eta egoera are gehiago okertu. Ordu gutxi geratzen zitzaizkion ontzi horri.

Gure protokoloaren arabera, lehendabiziko pausoa lasaitasuna transmititzea da; identifikatu eta erreskateko ontzi bat garela esaten diegu. Lagundu egingo diegula eta seguru daudela esaten diegu ondoren. Hortik aurrera, patxada handiarekin jokatu behar dugu. Lehen bi ontzietan jendea erosoago zegoen, toki gehixeago zeukan ontziaren barruan. Hirugarren ontzia, berriz, mu-

turreko egoeran zegoen. Barrukoak erabat pilatuta zeuden, gorputza gorputzaren kontra. Erdian zeudenak lepoa luzatzen zuten burua pixka bat atera eta arnasa hartu ahal izateko.

Berehala konturatu ginen erreskate zaila zela. Berez salbamendu-jakak banatu behar ditugu hasieran, baina kasu horretan ez egitea erabaki genuen. Ez zegoen leku fisikorik jendeak txalekoak jantz zitzan. Txalekoak banatuz gero, nonbait asfixiatzeko arriskua ikusten genuen. Gurekin zegoen suhiltzaile batek kontatu zidan Lesbosen antzeko egoera bat gertatu zitzaizela, txalekoak banatu zituztela eta kasik haur bat asfixiatuta hil zela. Nonbait jendea urduri jarri zen txalekoak janzteko orduan, haur hori lurrera erori zen eta zapaldu egin zuten. Guk ez ge-

nuen horrelakorik gertatzea nahi eta lasaitasuna mantentzea eta gure ontziari itxarotzea erabaki genuen.

Une oso larriak bizi zenituzten, ezta?

Bai, oso-oso larriak. Bi ordu luze eman genituen gure ontziaren zain eta une batean pentsatu genuen jende hori guztia gure begien aurrean itoko zela. Ontzia zulatu zenean, lau gizon jarri genituen izkina horretan olana eusten. Une batean denak oso urduri jartzen hasi ziren eta lau gizon horiek uretara erortzeko zorian egon ziren. Haiek eroriz gero, atzetik joango ziren denak, ontziak alde batera egingo zuelako. Gauean, lasaiago geundela, gertatu zenaren balorazioa egin eta garbi ikusi genuen: gauzak okertuz gero, berrehun lagun horietatik hamabost

Irailaren 26an 200 pertsona zerman ontzi bat erreskatatu zuten Mediterraneo erdian. Erreskate zaila izan zen, bi ordu baino gehiago eman behar izan zituztelako zain. GAUR8

baino ez genituzkeen salbatu ahal izango. Gainontzekoak begien aurrean itoko zitzaizkigun.

Lifeline ontzia bi ordu luzera iritsi zen erreskate tokira. Zer pasatu zitzaion?

Uniformatutako eta armatutako gizon talde batek aboratu egin zuen. Ez dakigu seguru kostazain libiarrak ote ziren, ez zutelako uniformerik eta ez zirelako identifikatu. Lifeline ontzira gerturatu eta amarratu egin ziren. Gure ontziko kapitainak, lasaitasun harrigarri, amarra askatu zuen. Bi ordu luze aritu ziren ika-mikan, airera tiroak botatzera iritsi ziren, eta, azkenean, lortu zuten haietaz libratzea eta gugana gerturatzea, erreskatea egingeko.

Zer nahi zuten armatutako libiar horiek?

Europak diru asko jarri du tartean eta beldur gara pizgarriak eskaini dituela Libiara bueltatzen den ontzi eta pertsona bakoitzeko. Uste dugu errefuxiatuei itsasoratzeko kobratzen dieten mafia berek berriz kobratzen dutela pertsona horiek bueltan lurrera eramatearen truke. Europak Turkian linboa muntatu zuen, eta, Libian, joan-etorrian dabiltzan pertsonen azoka muntatu du.



Bi ordu pasatxora, azkenean, iritsi zen zuek zineten tokira.

Itxaronaldia luzea eta gogorra izan zen. Nik abisua ematen nion ontziari eta oso erantzun arraroak jasotzen nituen bueltan. Konturatu nintzen zerbait arraroa gertatzen ari zela. Birtartean ontzian zeuden 200 pertsonak nahiko lasai egon ziren. Tarteka baten bat asaldatu eta urduritu egiten zen, baina oro har lasai egon ziren.

Azkenean, iritsi zen Lifeline ontzia. Hiru erreskate jarraian egin genituen eta ontzia tope-raino jendez beteta genuen. Erromako agintariei deitu genien, laguntza eske. Erromatik ontzi bat bidali zuten. Normalean petrolio plataformak hornitzen aritzen den ontzi handi bat bidali zuten, eta, Libiako bandera zekarren, bertako uretan ibili zelako aurretik. Jendearen erreakzioa beldurgarria izan zen. Pentsatu zuten ontzi hark Libiara bueltan eraman-

go zituela eta oso urduri jarri ziren. Gizonezko bat uretara bota zen ihes egiteko eta emakume batek esan zigun Libiara eramaten bagenuen hantxe bertan bere buruaz beste egingo zuela.

Gobernuz kanpoko erakundeek lanean segitzen duzue. Non dago Europa?

Europa ez dago eta ez da espero azalduko denik ere. Europak misio militar bat dauka –orain Estatu espainolak gidatzen duena– eta bere helburua poliziala da, urak patruilatzen ditu baina ez dauka inor erreskatatzeko edo salbatzeko inolako asmorik.

Bada ontzi europar bat Mediterraneo uretan dabilena. Izugarria, sekulakoa. Punta-puntakoa eta jende asko erreskatatzeko modua izango lukeena. Baina hori ez da bere helburua. Bere helburua jendea atxilotzea da. Gobernuz

kanpoko erakundeak bakarrik ari dira jendea erreskatatzen. Edo gobernuz kanpoko erakunde bat dago edo ez dago inor. Hori da panorama.

Eta gobernuz kanpoko erakundeek lana ere ez da errazten. Aldrebes, trabak jartzen zaizkie.

Zalantzarik gabe. Kostazainek trabak jartzen dizkigute eta legeek ere ez dute bidea errazten. Legearen arabera, Libiako kostatik 12 miliatik aurrera esku har dezakegu, ez lehenago. Orain eztabaida 24 miliatan dago. Guk, 24 miliatan egin ditugu azken erreskateak. Harri-garria da nola iritsi ziren ontzi horiek horraino. Eta Europaren asmoa da aurrerantzean muga 70 miliara zabaltzea. Alegia, kostatik ateratzen diren ontziak ezingo dira erreskatatu 70 miliara heldu aurretik. Erokeria hutsa. Horrek heriotza ekarriko du, ez beste-

rik, laguntza gabe ez baitago ontzirik 70 miliara irits daitekeenik. Europaren esanean, Libia arduratuko da 70 miliara arte zaintza egiten eta guk badakigu ez duela egingo.

Komunikabideen lehen lerrotik desagertu dira errefuxiatuak. Baina errealtatetik ez dira desagertu.

Are gehiago, lehen lerrotik desagertu ez ezik, kontrako korrontea zabaltzen ari dela sumatzen dut. Askok kezkatzen nau inguruan oso jende onari eskuin muturraren mezuak entzuten dizkiodanean; lana kentzera datozela, laguntzetatik bizi direla... Zure etsaia ez da patera batean datorren pertsona hori, zure etsaia gainean duzun nagusia edo gobernua da, etengabe burua zapaltzen ari zaizuna. Askok kezkatzen nau nazismoa orokorrean izaten ari den gorakadak; gorrotoaren mezua da.

1 X 2 gerturatu eta lau!

Miren Azkarate
Badiola

Denok entzun dugu edo egin dugu noizbait kiniela bat. Espainiako futbol Ligako (dudarik badago, futbol maskulinoko) 15 partiduren emaitzak asmatu behar dira. Alegia, 14 emaitza gehi *pleno al quince* bezala ezagutzen dena; hau da, hamabosgarren bat 1, x edo 2 laukitxoak markatuta. Asmatuz gero, dirutza poltsikora!

Hirurogeita hamaika urte dira apustu mota hau sortu zela eta aurten lehenengo, urriko lehen asteburuarekin, jokatzeko ziren norgehiagoketan hama-

bosgarren emaitza emakumeen futbol ligakoa zen, zehazki Athletic eta Atletico Madril taldeen arteko partidukoa. Egun historikoa! Emakumeen futbola ere existitzen dela! Eta Lehen Maila bat ere baduela! Batzuk agian orduantxe konturatuko ziren...

Ez da baina garaipen handia; halere, pauso txiki bat badela iruditzen zait, behintzat ikusgarritasun pixka bat edukitzeko bada ere. Izan ere, hemendik aurrera apustu hauek egiten dituenak dirua irabazi nahi badu (eta ez dezagun ahaztu apustu sistema bat dela finean

eta apustuak dirua irabazteko direla), zerbait, pixka bat bada ere, jakin behar du nola doan emakumeen Lehen Mailako futbol Liga! Zer edo zer bada ere jarraitu beharko ditu partiduak, bederen sailkapenean nola doazen! Emaitza bakar bat da eta oraindik ere gizonezkoen pare izateko bide luzea dago egiteko. 90 minutuko partidua hasi besterik ez da egin emakumeon kirolaren ikusgarritasun eta berdintasunean. A! Ahaztu dut esatea, bost asteburutan bakarrik jarriko dute hamabosgarren lekuan emakumeen emaitza. Pauso bat ote? •

Suhiltzaileak

Antton Izagirre

Sua, miraria eta misterioa, behin piztuz gero, kontrola ezina, berezko bizitza duena. Hala irudikatzen dut. Beldurra diot suari.

Mirespenez kantatzen dio Maialen Lujanbio bertsolariak suari: «Hura asmakizuna/ *homo habilis*-ena!/ Bazun intentzioa/ bazuen sena!/ Bi harrik elkar jota/ txispa bat aurrena/asmakizun haundina....». «Sua da problema» dio ondoren, baina suaren aldeko hautua eginez amaitzen du: «eta begiradek sortzen dutena».

Poliziek, bestelako sua piztu dute herriarren begietan, samina eta gorrotoaren sua, amata ezina.

Irudi ahaztezina jarri dute babestera agertu diren suhiltzaileek eta bi begiradek sortzen duten suaz eskertu diete herriarrek haien ausardia, muxuz eta txaloz.

Egutegietako argazkietan gorputz gihartsu eta apaingarriak izateari utzi eta kalera jausi egin dute hezur eta haragizko suhiltzaileak eta norekin dau den eta zertarako erakutsi digute. Sua-

ren erdian, ez dira albora jarri. Beste irudi bat eman du zenbait politikarik. Estatu espainiarra sua gasolinaz amatatu nahian dabilela aitortu, suhiltzaile izateko bere burua eskaini eta argazki izatera mugatu.

Une sutsu hauetan, hitz hutsen atzean ezkutatzen ez diren suhiltzaileak, kalean tokia hartzeko hautua egin dutenak bihurtu dira askatasunaren ikur, eta haienez, Hernaniko bertsolariaren ahotan, «bi begiradek sortzen dutena». •



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA



Elikatzea, gosea kentzeaz gain, hezte da. Pertsonak era arduratsu eta kontzientean aukeratu behar dugun ekintza da. Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

Elikatu arduratasunez

Elikatzea ez da bakarrik jatea, sabela betetzea. Elikatzea, gosea kentzeaz gain, hezte da, pertsonak era arduratsu eta kontzientean aukeratu behar dugun ekintza da. Gainera, elikatzea eguneroko ekintza da, gutxienez egunean hiru bider errepikatzen dugun ekintza.

Kontsumitzaileok era arduratsuan jokatu behar dugu, kaltetuta dagoen egungo elikadura sistema aldatuz eta

alternatiba bilakatuz. Gure gorputza, etxea, herria, ingurua eta gizartea babestuz gure eguneroko ekintza eta erabakiekin. Horixe da Ortutik Ahora elkarteak artikuluon bitartez zabaldutako lan eta bizitzan behin eta berriz errepikatzen dugun “mantra”: elikadura arduratsu, kontziente, osasuntsu, iraunkor, bidezko eta sortzailea.

Hasieratik hasita, lehenengo artikuluhonekin, gizaki guztiok daukagun

erantzukizunari, gure elikadura sisteman daukagun ardurari egingo dioguso. Elikadura eta kontsumo arduratsua sustatu eta defendatzea gure erabakia da. Herritar moduan gure erantzukizuna da ingurugiroarekiko, gizartearen eta gure guranako errespetua bermatu eta bultzatzea.

Testu honi hasiera emateko erabili dugun lehen esaldia berreskuratuz, elikatzea ez da bakarrik jatea. Elikatzeak gure arreta osoa behar du, gure kontzientzia eta inplikazioa. Hala ere, pertsonen esku dago herriarena den elikadura burujabetza gogor eskuratu eta defendatzea. Era askean eta arduratsun osoz erabakitzea non kontsumitu, zer kontsumitu eta nola kontsumitu. Herrian kontsumitzea, ekologikoa kontsumitzea, sasoikoa kontsumitzea, osasungarri kontsumitzea (barazki fresko

gehiago, proteina animal gutxiago), hondakinak murriztea (ontziratutako produktuak, aprobetxamendua)... gure erabakiak izan beharko lirateke.

Dena den, gure konpromisoa ez da nahikoa sistema oso bat aldatzeko, gobernu eta arduradunen konpromisoa eta inplikazioa ere indarrez aldarrikatu behar dugu. Haien betebeharra baita gizartearen ongizatea ahalbidetzea eta interes ekonomiko hutsak alde batera utzita gaur egun jasanezin aurkeztzen den kontsumo eta elikatze sistema eraldatzea.

Jada, gizarteak, elikadura sistemaren aldaketaren beharra agerian utzi du. Eta nondik hasi elikadura sistema oso bat aldatzen? Hasiera-hasieratik, arazoaren funtsetik. Bidezko sistema bat ezarri. Esate baterako, lehenengo sektorearen prekaritatea saihestuz eta



Sasoiko eta bertako produktu fresko eta ekologikoak kontsumitzea praktika ona izan daiteke. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

herrialdeetako landa mugak defendatuz. Nekazaritza ekologiko eta nekazaritza baserritar baten aldeko apustu erreala egin eta tokiko jasangarritasun ekonomikoa bermatu behar da.

GURE PLATERA GURE AUKERA

Dena den, gure mezuak positiboa izan nahi du, gauzak ondo egiteko aukera badago eta gure gizarteak ondo jokatzeke aukerak baditu. Horren adibide esanguratsuenetariko bat azkenaldi honetan Euskal Herriko hainbat eskolako jangeletan ezarritako ereduak eraldatzeko eramaten ari diren ekin-tza eta iniziatibak dira. Konpromisoarekin eta inplikazio osoz Gure Platera Gure Aukera plataforma sortu da, erakundeak erabaki egokiak hartzera bultzatu eta eskoletako sukaldeen gestioa gurasoen elkarleen esku uztea helburu duena. Plataforman, hezkuntza sistema osatzen duten aktore guztien parte hartzea bilatzen da: guraso elkar-teak, jantokietako langileak, nekazariak... Guztiek batera lan eginez jantoki kolektiboak (eskola, egoitza eta ospitaleak barne, besteak beste), espa-

zio arduratsuagoak, iraunkorragoak eta adeitsuagoak bilakatzea da xedea. Jangelen egoera larria bada ere, gizarte antolatu egin da eta prest dago hori guztiz aldatzeko.

Badaude praktika onen eredu diren hainbat eskola, Markinako Bekobenta edota Gernikako Allende Salazar eskola publikoak, adibidez. Hauetan, irizpide arduratsuagoak ezarri dira, kudeaketan, produktuetan eta kalitatean; sasoiko eta bertako produktu fresko eta ekologikoak, hezkuntza komunitatearen parte hartzea, familien parte hartzea, jantokiko batzordearen autogestioa edota jantokia benetako hezkuntza esparru bilakatzea.

Ortutik Ahora elkartekoek, Gure Platera Gure Aukera plataformaren kide eta Allende Salazar eskolako barazki ekoizle moduan, oso gertutik ezagutzen dugu Gernikako Allende Salazar eskola publikoaren kasua. 2016ko irail-lean, behin Hezkuntza Saileko baime-na lortuta, eskolako Gurasoen Elkarte-ak jantokiaren kudeaketa eta beronen eredua aldatzeko aukera izan zuen. Helburu zehatzekin ekin zitzaion alda-

ketari: umeen osasuna zaintzea, Urdai-baiko jasangarritasuna bermatzea eta tokiko lehen sektorea bultzatzea. Horretarako, eskolako Guraso Elkarteak eta sortu berria den JanTokikoa Urdai-baiko nekazari elkar-teak, elkarlanean, eskualdeko egoera ezagutu eta eredu berri honen nondik norakoak aztertu eta koordinatzeko lanak aurrera eramantuzte.

Hortik aurrera, ugariak izan dira al-daketak eta hobekuntzak, eta lehenengo urtea igarota, balantzea oso positiboa izan da. Eskolako Guraso Elkarteak adierazi duenez, umeek jaten duten elikagaien kalitatea nabarmen hobetu da. Aldi berean, jantokiko langileen lan baldintzak mantendu dira, lan karga mantenduz. Bertako ekonomia bultzatu da, gaur egun Busturialdeko bost nekazari, Ortutik Ahora elkartekoak tartean, eguneroko barazki ekologikoen hornitzaileak dira. Hala, kalitatezko lanpostu berriak sortu dira, esate baterako, jantoki eredu berriaren kudeaketarako pertsona baten kontratazioa. Gainera, Guraso Elkartetik egiaztatu denez, «proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa erakundeek eta familiek diru gehiagorik ipini gabe lortu da. Proiektuaren kudeatzaile den Guraso Elkarteak ez du irabazi asmorik eta zuzenean erosten ditu elikagaiak. Horrek bermatu du askoz diru gehiago zuzentzea elikagaiak erostera».

Bidea zaila da, baina baita oso polita ere. Akaso, ba al dago gauza politagorik gure umei janaria emateaz gain elikadura arduratsu, kontziente, osasuntsu, iraunkor, bidezko eta sortzaile ematea baino?


Posiblea da era arduratsuan elikatu eta kontsumitzea. Agintariekin araudia alda dezatela eta herritarrok arduratuz jola dezatela! Eredua aldatu, alternatiba badago!

Ortutik Ahora

infraganti

MURIEL RUIZ DE LARRAMENDI

Ez dago utopiarik bere pentsamenduan; hau da, ez dago ezinezkorik. 18 urte bete aurretik Espainiako Txapelketan gailendu zen, senior kategorian zein 20 urtez azpiko junior kategorian. Edonola ere, Euskal Herriko eskalatzaile onenen artean kokatua izatearen kontua ez zaio gustatzen. Bere asmorik tinkoena bizitza guztia eskalatzen igarotzea da.



Abuztuan, Arcon, Italian, lehiatu zen Ruiz de Larramendi. GAUR8

Errusiatik iritsi berri, jada Lleidan lur hartuta, Muriel Ruiz de Larramendik (Uharte, 1999), azken zortzi urteotan paretak igotzen igarotako esperientzia eta lorpenei buruzko solasaldian murgildu gintuen. 18 urte bete zituen uztailean eta ordu-

rako –maiatzean zehazki– Espainiako txapeldun titulua lortuta zuen, 17 urterekin alajaina. Gazte edo junior mailan lehiatzea egokitzen zitzaion berez, baina «handiekin» parez pare aritzea normalizat du berak: «Askok egiten dute». Egin bai, baina irabazi? «Askok borrokatu behar da, ez da txorakeria», erantzun du irribar-

rez. Junior kategorian ere berak irabazi zuen titulua.

Ahizparengatik murgildu zen eskaladaren munduan, 10 urte zituela. Atletismoan zebilen orduan, eta bi urte gazteagoa den ahizpak nola eskalatzen zuen begiratzen zuen. «Bera entrenatzen aritzen zenean begira egoten nintzenez, izena ematea pentsatu nuen». Eta bai estuki lotu ere eskaladara! Ordutik paretak igotzen pasatzen ditu egunak eta behin baino gehiagotan adierazi du beragatik balitz bizitza guztia eskalatzen pasatuko lukeela. «Eskalatu gabe nagoenean ez naiz ni sentitzen, behar dut hormak igotzea, esango nuke beste edozer baino gehiago!», aitortu du. Oinak gainazal lauetan eroso sentitu beharrean, gizartearen gehiengoak legez, Ruiz de Larramendik nahiago ditu eskalada murruetako horma irregularrak edo arroak: «Nire konfort eremua da. Gustura sentitzen naiz eskalatzen nagoenean, nire arazoak edo eguneroko gauzak ahaztea ahalbidetzen dit».

Aurten, unibertsitate ikasketak tarteko, Lleidara mugitu da. Albaitaritzak ikasten hasi da eta onartu du oraingoz ez dela ez ikasketetan ez eskaladan zentratu, orain gutxi, irailaren 30ean eta urriaren 1ean, Errusian jokaturako Europako Txapelketan egon bada ere. «Oraindik ez dakit nola moldatuko naizen ikasketak eta kirola tartekatzeke, egia esan». Katalunia uneotan «gori-gorrian» egoteak ere ez omen du laguntzen. Baina badu Lleida aukeratu izanaren arrazoi serio bat: «Albaitaritzako gradua Zaragozan ere bazegoen, baina, eskalatzeke, nahiz eta etxetik urrunago egon, Lleidak au-


kera gehiago zituela ohartu nintzen». Gainera, Lleidan bazuen txapelketen bitartez eza gututako kide bat eta jada probatu ditu, aurreneko aldiz, bertako arroak...

EUROPAKO HAMAHIRUGARREN

«Aurtengo kurtsorako nire itxaropena da biak tartekatu ahal izatea. Zaila da nahi duzuna ikasi eta eskaladan aritzea, eta oraindik serio entrenatzen hasi ez arren, bietan %100ean aritu nahi dut». Ez da xede makala, baina itxaropentsu agertu da; energiaz beteta dago bizitzak jarritako erronka berria gainditzeko. Oraindik etorkizun hurbila antolatzeke du, izan ere, iaz Javi Berasaluze izan zuen entrenatzaile, «baina aurten ez dakit norekin entrenatuko dudana, oraindik kokan dago hori».

Europarren artean lehiatzeetik dator Ruiz de Larramendi –euskal emakume ordezkari bakarra-, eta ez da kontent itzuli. Europako gazteen txapelketan finalaurrekoetara sailkatu zen. «Tira, joandako denok sailkatu ginen, berez 26 eskalatzaile sailkatzen dira, baina, zifra hori baino lehiakide gutxiago geundenez, denok izan ginen finalaurrekoetan», zehaztu du. Dena den, uhartearra bederatzigarren postuan igaro zen. Finalerako txartela, ordea, ez zuen lortu. Hamahirugarren bukatu zuen azken fasea eta txapelduna aurreneko zortzien artean erabaki zen: «Bera, ez nuen helburua bete-betean lortu». Beti hobetu daitekeelakoan dago.

Eskalatzaile gisa hazten jarraitzea du jomuga eta ez du espero inoiz sabaia jotzera ailegatzea. Berarentzat ez da



Berriobeitin 2015ean antolatutako Euskadiko Txapelketan, hirugarren bukatu zuen senior mailan.

Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

utopiarik, dena da posible. Baieztatu du European dagoen maila askoz altuagoa dela espainiar Estatukoarekin alderatuta, baina posible ikusten du onenen artean lehiatzea. Hori bai, ez du entzun nahi etorkizun oparoena aurreikusten zaion Euskal Herriko

emakume eskalatzailea izatearen kontua; hots, onenen artean dagoela esatea. «Niretzat ez da horrela, nik ez nuke hori esango, eta ez dut bestelako presiorik sumatzen», ohartarazi du. Hankak lurrean di-tuela erakutsi du, aski zaila 18 urte bete berritan.

Abiatu berri den kurtsoko xedea albaitaritzako ikasketak eskaladarekin tartekatzea da. Badaki zaila izango dela, oraindik ez da entrenatzen hasi, baina «bietan %100ean egon nahi dut»

8b+ zailtasuna egina dauka, eta, bistaz, 8a. Inprobisatzea gogoko duela aitortu du, «baina saioak behin eta berriz egitea ere gustuko dut, zure maila gorena horrela lor baitezakezu»

«Erronkak gustuko ditut, soilik modu horretan ikus dezakezu noraino irits zaitezkeen», nabarmendu du. Alabaina, ez du konplexurik esateko orain arte kostatu egin zaiola maila altuetako arrokkak igotzera ausartzea. Hala, entseatutako eskaladan eta bistaz gradu antzekoa dauka, batean 8b+ eta bestean 8a, hurrenez hurren. «Jada entseatuan maila igo dut, baina arrokkara asko joaten ez nintzen ondorio da bi graduak antzekoak izatea», argitu du. Hori horrela, indarrez da etorkizun hurbilean arrokketara gehiago joateko, «8c zailtasuneko bateren bat igotzera, agian». «Bi modalitateak gustatzen zaizkit. Agian inprobisatzea gehiago, unean eskalatu eta ez duzulako berriro egin behar. Entseatuan, aldiz, kateatzea lortu arte saiatu behar zara, denbora gehiago eskatzen dizu. Baina saioak behin eta berriz egitea ere gustuko dut, zure gorengo maila horrela lor baitezakezu».

BIZITZA OSORAKO BEGIRADA

Berarengatik izango balitz, bizitza guztia eskalatzen igartzeko prest dago, «hori lortzen saiatuko naiz, behintzat». «Ez da erraza, baina norberak zer edo zer benetan nahi badu, nire aburuz, lortuko du. Nik uste dut bizitza osoa pasako dudala hormak igotzen. Beno, ez dakit bizitza osoa –barrezka-, baina nahi izanez gero lortuko dut».

Grina hauspotzeko garaipen edo lorpenek zerikusirik izan ez dutela zin egiten du. Eskalada gustatzea eta praktikatzen disfrutatzea dira berarentzat funtsezko ezaugarriak, «maila, azken finean, bigarren planoko zerbait da. Ezagutzen ditut gorenko maila izan gabe ere eskaladaren fanatikoak direnak ere». Baina bere nahia –«zergatik ez?»– eskaladatik bizi ahal izatea da, afizioa ogibide bihurtzea, alegia.

Itxaropenak gidaturik etorkizun oparoa aurreikusten zaio Uharteko eskalatzaile gazteari. Ez dago ezinezkorik bere hiztegian, eta hori transmititzeko agertzen duen naturaltasunak harridura pizten du. Lurretik zerura igotzeko desioa azaleratzen du begiradan eta zirrarez bukatzen du saio bakoitza, horma guztiz igotze hutsa garaipena izanik.

Eskalatzearen grina bidaia-tzearen zaletasunarekin tartekatzen du. «Eskalatu ezean ezingo nuke bidaiatu dudana bezainbeste bidaiatu», aitortu du hagitz kontent. Abuztuaren bukaeran Arcon (Italia) izan zen, irailaren hasieran Innsbrucken (Austria) eta orain bi aste Permen (Errusia). Batean edo bestean, filosofia berberarekin egin ditu igoerak, eta egingo ditu aurrerantzean. Oinak lurrean eduki ez arren, betiere zuhurtziaz jokatu. •

Ane URKIRI ANSOLA

**Montse Maritxalar**

EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria

Berrikuntza teknologikoa hizkuntzaduna da

Programazio-lengoiak erabiltzen ditugu ordenagailuen portaera aginduen bidez kontrolatzeko. Arau sintaktiko eta semantikoak jarraitzen dituzten hizkuntza artifizialak dira programazio-lengoiak. Baina lengoia hauek hizkuntzarik ez izateak ez du esan nahi teknologia hizkuntzagabea denik. Teknologiaren erabiltzaile zein sortzaile gisa aritzen garenean komunikazio bide hautatzen dugun hizkuntzak eragin zuzena izango du etorkizuneko gizartean, are gehiago desabantailan dauden hizkuntzen kasuan, euskara kasu. Sakelakoa, ordenagailua edo tabletarekin elkarreragiten dugunean komunikaziorako hizkuntza hautatzen dugu, edo hautatzen digute; era berean, teknologia medio, beste pertsonekin elkarreragiten dugunean hizkuntzaren aukeraketa ere egiten dugu. Beraz, egun osatzen dugun euskal gizartearen egunerokotasuneko hizkuntza ohiturak ez dira bakarrik kale neurketetan islatzen direnak; egunerokotasuneko hizkuntzaren erabilera teknologiaren aterpean ere gertatzen ari da.

Teknologia hizkuntzaduna da. Teknologiaren erabiltzaileek zein teknologiaren sortzaileek komunikazio bide gisa aukeratzen duten hizkuntzak eragin handia izango du hurrengo urteetan eraikiko dugun hizkuntza komunitatean. Hori dela eta, Euskal Herrian hainbat ekimen bultzatu dira dagoeneko. Besteak beste, Euskal Wikilarien Kultura Elkarteak Euskarazko Wikipedia sustatzeko sortu zen 2016an, auzolana eta jakintza askea sustatuz; Sustatu, euskaraz sortutako lehenengo weblog kolektiboa, 2001ean jaio zen, batez ere teknologia berrien inguruan informatzeko; Librezaleak aplikazio informatikoak euskaraz edukitzeko helburuz abiatu zen 2002an, softwarea euskaratzen duen edonori lagun-

tza eskainiz; eta, IXA Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) ikerketa taldea hizkuntzaren tratamendu automatikoan aritzen da 1987tik, euskararen gaineko ikerketa aplikatua xede nagusia izanik.

Teknologia euskalduna bizirik dago. Nahikoa da urrian zehar egongo diren ekimenei begiradatxo bat ematea. Urriaren 26an Euskarabilduaren seigarren edizioa izango da Donostian, bertan komunikazioari eta marketinari buruz arituko dira gehienbat. Urriaren 20an euskal komunitatearen moodle esperientzien elkartruckerako hamaikagarren MoodleMoot jardunaldiak izango dira Gasteizen, aurten Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) antolatuta. UEUk urteak daramatza unibertsitateko zein etengabeko prestakuntzan euskara hutsez; eta, azken urteetan, *on line* eskaintza hartu du ardatz estrategikotzat. Hilabete honetan antolatu dituen ikastaroei erreparatzen badiugu ondokoak aurkitzen ditugu: “Norberaren PLE-a osatzen”, “Moodle-n irakaskuntza eraginkorra nola”, “Adingabeak eta Internet: arriskuak eta nortasun digitala” eta “R software askearen erabilera Natur Zientzietako estatistikan”; hauek guztiak euskaraz eta *on line* izateaz gain teknologiari buruzkoak ere badira. Bestalde, UEUk berak, EHUrekin batera, urriaren 20an hasiera emango dio bi graduondokoei, hauek ere euskaraz, *on line* eta teknologiari buruzkoak: “IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan, etengabeko formakuntzan, eta hizkuntzen irakaskuntzan” eta “Itzulpengintza eta teknologia”.

Aipatu ditudan guztiak hilabete honetan, Euskal Herrian, euskara nagusi eta teknologiari buruzkoak, teknologia bide dela. Poztekoa da gizarte euskaldunak erronka berriei aurre egiteko duen gaitasuna; trenak ez digu alde egingo, bertako bidaiariak baikara dagoeneko. •

	Nor gara?	Ikastaroak	► Berriak
	Euskal Unibertsitatea	Irakasleen formakuntza	► Irakurri
	Deialdiak	Jardunaldiak	► IKTresnak
	Idazkaritza birtuala	Gradu eta graduondokoak	► Denda
	Harremanetarako	Udako ikastaroak	► Ikasgela birtuala
	Gurekin lan egin		
	Prentsa-bulegoa		
Ikasi ► Ikastaroak ► MoodleMoot Euskadi 2017			
Urriaren 20an MoodleMoot jardunaldiak izango dira Gasteizen, aurten UEUk antolatuta.			

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



PIRINIO ATLANTIKOETAKO DEPARTAMENDU ARTXIBOAK

EUSKAL HERRITARRAK, I. MUNDU GERRARA BIDEAN

I. Mundu Gerra zela-eta (1914-1918), Ipar Euskal Herrian 18 eta 49 urte bitarteko milaka lagun mobilizatu zituzten. Gatazka hartan bizitza galdu zuten euskaldunen kopurua 6.000 eta 7.000 bitartekoa omen da. Europan 11 milioi hildako izan ziren. Hainbat euskal herritarrek, gerratik ihesi, Ameriketara joan edo Pirinioak zeharkatuta desertatzeko aukerari eutsi zioten. Hendaia komisario bereziak, desertzio horien berri emateko, txosten bat aurkeztu zion Baionako prefetari: «...frontean dauden lagunen gutunak eragindako zirrara itzela da. Herrialdeko lagunentzat baino ulergarri ez den hizkuntza batean idatzitako gutunak, ondo dakit nik, etxez etxe hedatuak eta iruzkinduak dira... Herrialdeko berezitasun etnografikoak agerikoak dira. Denek dakitenez, euskal familiak, hizkuntza berean mintzatu eta elkarren arteko harreman etengabeak dituzten elementuek osatuak, mugaz alde batean eta bestean bizi izaten dira berdinki...». Zenbait landa eremutako hornidura arazoak zirela-eta, frantses Gobernuak uztak eta aziendak konfiskatu zituen. Egile ezezaguneko argazkian, 18. Erregimenturako errekrutatutako euskal herritar talde bat ageri da, Paueko geltokian, frontera abiatzeko zain.

*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*



GAUR8 Larunbatero **GARA**rekin

